

Goierriarra

292. zenbakia 2005eko abenduak 20



AXIO ARAÑA

Errugbiaren pasioa

Zeure argazkiekin, etxekoei edo lagunei oparitzeko

egutegiak



Christmak




foto kuadernoak



bertan egiten ditugu

fotoetxe



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizontasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.F.S.:32/04

BERTSOTAN

Urte Zahar - Urte Berri



Iker Zubeldia

Eguberritan ozenduko da kartzetako negarra sistema batek bereizten gaitu hegoa eta iparra urte berria datorrela ta azkenean kaka zaharra... egutegiko zenbakia da aldatuko den bakarra.

Bi mila ta lau, bi mila ta bost, bi mila ta sei kasi. Inoiz ez dugu kaixo esaten eta agurtzen ikasi urtea ondo ezin da joan ez gaitzela nahasi erdi edanda bukatzen bada ta buruko minez hasi.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonia:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga

9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak

ez du bere gain hartzen
derrigorrez,
aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Goierritarra diruz

laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Itsasondo,
Ormaiztegi eta Zaldibiako udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

MULTIOPTICAS
P.S.P.: **80€**Gabonetan **58€**P.S.P.: **48€**Gabonetan **35€**P.S.P.: **45€**Gabonetan **30€**
Gabonetako Opariak


Ez mezagaria beste eskaintza batzuekara.

**LEHEN KALITATEKO
KOLORETAKO LENTILAK**
P.S.P.: **27€**
 Gabonetako
salneurri
berezia
18€
 J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • **ORDIZIA**



Rufino Iraola Garmendia

*Hango urreak,
zilarrak,
diamanteak
eta beste metal
eta mineral
asko
buskerian
datoz hona,
baiek esku
butsik eta
larrugorrian
utzirik.*

Kanpo zorra, pobreak hiltzen dituen gurpil zorrea

Kanpo zorra. Zer dago hitz horren azpian? Labur esateko, tragedia handia, drama izugarria, eta giza adimearen porrot historikoa.

Oso erraza da kanpo zorra zer den definitzea: herrialde batek beste bati dion diru zorra. Ez leukake garrantzi handirik zor hori parametro normaletan errendituko balitz, baina ez da hala gertatzen. Hirugarren Mundua deituriko herrialdeek diru mordoak zor diete herrialde aberatsei. Kasu batzuetan, urteko aurrekontuaren % 80raino iristen da, eta, begi bistakoa denez, oso diru gutxi geratzen zaie gainerako beharrei erantzuteko.

Bi arrazoi nagusi daude zorra zorren gainean pilatzeko. Batetik, herri aberatsek pobreei dirua uzten diete. Zer-nolako baldintzetan, ordea? Hori da arazoa. Edozein momentutan aldatzen diete utzitako diruaren interesa: orain %6 baldin bada, hemendik 6 hilabetera izan daiteke %15. Horrela, abuso nabarmen horren erruz, sartzen dira gero zor handiagotan. Bestetik, Hirugarren Munduko herrialdek saldu behar dituzten produktuei (batez ere lehengaiak) beraiek ez diete ipintzen prezioa, Europa eta Amerikako erosle aberatsek baizik. Hango urreak, zilarrak, diamanteak eta beste metal eta mineral asko buskerian datozen hona, haiek esku hutsik eta larrugorrian utzirik. Hori gutxi balitz, sekulako arantzelak ordaindu behar dituzte, "lapurtzen dieten" ez esatearren, esportatzen dituzten produktuengatik.

Beraz, garbi dago haien hipoteka nondik datorren eta ondorioa zein den: pobre eta aberatsen arteko banaketa, dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa. Herrial-

de aberatsen politika komertzial osoa, zorritzarrez, kontsumoari begira egina dago; sistemak erostera bultzatzen gaitu, baina dirua daukatenek bakarrik eros dezakete, eta ez dutenak sistematik kanpora gertatzen dira, gosea, miseria eta gaixotasunak besterik ez dutela, ihes egitea beste erremediorik gabe.

Baina zergatik ez da konpontzen arazo hori? Erantzuna oso sinplea da; gure estatusa jaitsi nahi ez dugulako. Pentsa ezazue zeinen dramatiko den egoera: gure gutxiago kontsumitzen ez dugun bitartean, Afrikan ezin dute gehiago kontsumitu, zeren horrek planeta honen suntsipena lekarke. Garapen jasagarria diogunean hartzen ote dugu hori kontuan?

Bestalde, giza adimenaren porrota da hau. Eta gure adimenak porrot egiten du errealitatea ikusi nahi ez dugunean, problema sozialak eta politikoak konpontzeko gauza ez garenean, krudelkeria eta biolentziaren aldeko apustua egiten dugunean edo geure eta inoren bizitza ozpintzen enpeinatzen garenean, ala zoriontsuak gara mundua horrela ikusita? Carlo Cipollaren ustez, ergelkeriaren gailurra da norberarentzat probetxurik gabe inori kalte egitea. Nik uste dut adimenaren porrota dela, era berean, besteri kalte eginda etekina ateratzea ere. Adibidez, intelgentea izan daiteke; Europako edo Amerikako ekonomiaren markotik begiratuta, elikagaien produkzioa murriztea edo soberrakinak itsasora botatzea; baina ez mundu zabalaren markotik begiratuta: nola jasan dezakegu hori, mila miloi baino gehiago goseak hiltzen daudela jakinda? Ez al duzue espero errebantxarik?

YARZABAL, S.L.

**Zurgindegi
mekanikoa**

AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Kale Nagusia, 10 BEASAIN

Tel.: 943 161 999

Nagusi
ptika

OPTIKA

Nagusi
ptika





Zorionak eta urte berri on!!



SASIETA MANKOMUNITATEAK
eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.

2006an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko. **Traste zaharren egunean atera behar dira.**



URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobe! Prezio berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



**Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!**

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA

Astronomiaz jardunean... Pluton datorkit gogora

Eta oinarri-oinarrian, astronomia gaia lehen hezkuntzatik erakutsi badigute ere, Plutoni buruz aritu aurretik, zenbait kontzepturen azalpenak ematea ezinbestekotzat jotzen dut, oro har ahantzitako gaia dugulakoan.

Erakusten digutenaren arabera Eguzki Sistema, bederatzi planetez dago osatua (Merkurio, Artizarra, Lurra, Martitz, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton). Tarteetan, planetak ez diren hainbat elementu ere badaude: ilargia, asteroideak, kometak...besteak beste.

Aipatu ditugun planetak Eguzkiak sorrarazten duen grabitate erakarmen indarraren ondorioz, orbita zehatzak markatzen dituzte. Mugimendu guzti hauek, ipar poloaren gainetik dagoen puntu batetik begiratu gero, ordulariaren orratzek eginiko mugimenduen kontrako zentzuan ematen direla ohartu daiteke, Artizarra salbuespen izanik.

Planetak Lurraren plano beretsuan mugitzen dira, Merkurio eta Pluton izanik urrutien geratzen direnak, 7 eta 17 gradutako makurdurarekin.

Planetak elipse forma markatuz jira biratzen dute eguzkiaren inguruan. Hori

dugu planetek eguzkiarekiko azaltzen duten distantzi aldaketaren arrazoi nagusienetariko bat. Afelioa (orbitaren punturik urrunena) eta perihelioaren (orbitaren punturik gertuena) arteko distantziek desberdintasun handirik adierazten ez badute ere, Plutonen orbitaren kasuan bere perihelioa, Neptuno baino gertuago dago Eguzkitik.


Planeta gehienek ilargiak dituzte beren bueltan: Lurrak?, Balentziakoa kenduta bat noski. Jupiterrek? 14. Eta ilargirik gabekoak? Merkurio, Artizarra eta Pluton. Azken hau arraroen zerrendan orain ere, bitxi xamarra dirudi.

Plutonen aurrekariet so,

Perival Lowell astronomoak hasitako azterketa luze baten ondoren, Clyde Tombaigh aurkitu zuen 1930 urtean. Denbora asko iragan zuten, artean planeta handi baten bila zirelakoan, baina Pluton oso txikia izate gertatu da. Gainera, beste ezaugarrien artean bere tenperatura dugu, 0 absolutuaren inguruan omen baitago. Hori dela eta eztabaida mahai gainean dago, astronomo batzuk asteroide bat besterik ez dela baitiote.

Zientzia .net web-ean orain aste batzuk Guillermo Roa Zubiak argitaratu duen Plutonen argazkia ikus dezakezue, eta Cristobal Colon edo Elkanok bezala... mundu berri batzuen egarritan gizakion historian lehen urratsak diren hauetan parte aktiboa izan, Julio Verne berri bat bai gina, besterik ez bada...

Maribel Zufiaur Ormazabal




JAKIN BEHARREKOAK

LANDARLAN EGUTEGIAK SALGAI

Landarlan taldeak antolatutako argazki lehiaketako 12 argazki onenekin egutegia kaleratu du. Egutegia 2 eurotan dago salgai ondorengo lekuetan:

Ordizian: Delikatuz, Goierriko Baratza, Foto Ordizia eta Goimen elkarrekin. **Seguran:** Ardixarra. **Zerainen:** Mandioa. **Ataunen:** Lizarrustiko parketxea. **Zegaman:** Andueza egurraren interpretazio zentroa. **Itsason-**
don: Gipuzkoako Erlezain Elkarte.



**Planetak elipse forma markatuz
jira biratzen dute eguzkiaren
inguruan.**

943 086 579
670 238 357

www.inmovalenciaga.com
VALENCIAGA

INMOBILIARIA-AGENTZIA

Nafarroa etorb., 3
BEASAIN

Valenciaga inmobiliariak, lagun eta bezero guztioi
eguberri jai zoriontsuak igaro ditzazuen opa dizue
Urte Berri on!

Ainhoa Garmendia

eta

Nerea Bengoa

JOS-BEL
ILEAPAINDEGIA

© 943 88 82 52

Urdaneta, 15

ORDIZIA

ANNE
MÖLLER
TRAITEMENT SUISSE

kosmetika

Mayte Orreaga

bisuteria

Blanch

coacha blanch

**zapiak
txapelak**

Gabonak beste era batera

Gabon egunak bertan dira eta honekin neurrigabeko kontsumorako egunak. Kontsumismoaren erokeriaren paradigma dira gabonak. Gabonak horixe bihurtu baitira, inolako zentzurik gabe "zoriontsu" egiten gaituzten gauza horiek etengabe kontsumitzera eramaten gaituen sasoia.

Inoiz baino gehiago, ahaztu egiten zaizkigu era zentzudun eta osasungarrian kontsumitzeko ohiturak eta bitartean natur baliabideak agortuz doaz. Egoera honen aurrean galdera honi erantzuna eman beharke genioke: nola eragiten diote gabonek gure planetari?

Hasteko, gabonek ez lukete kontsumo basati horren sinonimo izan behar eta honetan ere iraunkortasun irizpideak kontutan hartu beharke lirateke.

Hemen dituzue jarraitzeko eredu batzuk:

- Gabonetako argiak: ez da ahaztu behar gabonetan kaleak "alaitzeko" zintzilikatzen diren milaka bonbilet energia elektrikoaren kontsumo handiak dakartzala. Gabonak politak izaten jarraitu dezakete kaleetan, zein etxean horrenbeste bonbila jarri gabe.
- Opariak: birziklatu ezazu



etxean duzun hori opari bihurtzeko. Pilak behar dituzten jostailuak ez erosiz, hondakin bihurtzean sortzen duten ingurumen eragina ekiditea lortuko duzu. Hobe da oparitzen diren jostailuak hezitzaileak eta pedagogikoak izatea, indarkeria, sexismoa edo arrazakeria sustatzen dutenen orde.

- Bildukin eta edukiontziak: gabonetan paper zein plastikozko edukiontzi zein poltsen ekoizpena izugarri gogortzen omen da. Hau neurri batean behinik galarazteko, ontzi edo poltsa birziklagarriak dituzten produktuak kontsumitzea da bidea. Era berean, erosketak egitera norberaren poltsa erama-

nez plastikozko poltsen erabilera gutxitzea lortuko genuke.

- Erosketak: zein garraio eta zein komertzio?: gaur egun azalera handietako komertzioek energia kontsumo handia eskatzen duten garraio ereduakiko menpekotasun handia dute. Honela, egun horietan garraio publikoa erabiliz eta erosketak auzoko dendetan eginez, egoera jasanezin honi aurre egingo genioke. Bestetik, beste herriekiko elkartasunerako egunak direnez, erosketak komertzio justuko dendetan egiteko ere garaia da.
- Gabonetako apaingarriak: urtero gabonetan etxea apaintzeko zuhai-



tzak edo landareak esku-ratzeko dagoen ohitura ez da egokia ingurumen zaintzaren ikuspuntutik, urtetik urtera aldatu egiten baitira aurrekoa zaborretara botaz. Plastikozkoak ere ez dira aukera egokiena, hauek ere zaborrontzian bukatzen dute eta erraustean dioxinak sortzen baitituzte. Apaingarriak etxean ditugun materialak berrerabiliz lortu daitezke eta etxekoan imaginazioa martxan jartzeko aukera on bat izan daiteke.

- Jan otorduk: jan otorduek bere garrantzia dute egun hauetan eta jaten edo edaten dugun horren jatorriari kasu gutxi egiten diogu gehienetan, atzean ezkutatzen duten errealitateari ezikusia egiten diogu. Esaterako, langostinoa da kasu aipagarri bat. Langostino saltzaileek, honen ekoizpenak jatorrizko herrialdeetan duen ingurumen eta giza eragin gogorrak ezkutatu egiten dituzte.

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak


Diseinua

Kalitatea

Berrikuntzak

Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA



AUTOESKOLA

Ondo pasa gabonak!



MIRENTXU

Gabon
zoriontsuak
denoi!

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO
APAINGARRIAK
- OPARIAK



Kale Nagusia, 1 Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 943 88 14 57 ☎ 943 88 04 55
BEASAIN

**MONT
BLANC**



ARGI
OPTIKA

zorionak
urte berri on

Nafarroa etorbidea, 14
Beasain T 943 88 31 10
www.argioptika.com



SUKALDEAN



Eneko Azurmendi
Lazkao Etxe jatetxea
Zaldibia

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 4 txerri hanka
- Onddoak
- Tipula
- Porrua
- Azenarioa
- Haragi salda
- Ardo beltza
- Koñaka
- Irina
- Olio
- Gatza

Txerri hankak onddoz beteta

Txerri hankei irakinaldi bat eman, zikinak ateratzeko. Ilek suarekin kendu. Txerri hankak erditik egin eta egosi, tipula bat, baratzuri buru bat, azenario bat, tomate gorri bat eta gatzarekin.

Saltsa egiteko, oliotan, tipula, azenarioa eta porrua ondo gorritu. Ondoren, kopa bat koñak bota. Flanbeatu eta irina gehitu. Ondoren, ardo beltza eta haragi salda bota. Su geldian ordu pare batean eduki. Gatza

neurrian dagoela ikusi. Saltsak gorputza hartutakoan, barazkiak kendu.

Jarraian, txerri hanken erdian, tipularekin frijitutako onddoak sartu eta txorixoa bailitzan bildu. Hozten denean, hozkailuan sartu, 2 orduan. Zerbitzarekoan, xerratan moztu eta zartagian kolorea eman.

Aurkezteko garaian, saltsa gainetik bota. Laguntzeko, patata purea, konpota edo eta onddoak gehitu daitezke.

Txakurkumeak opari

Gabonak gertu ditugu eta txakurkume bat oparitzea atsegin du askok. Baina go-goan izan oparia baino, ondorenerako ardura haundia dela eta denen artean hartu beharreko erabakia dela. Arraza aukeratzeko garaian, txakurraren izaera eta bere beharrak, gure ingurugunera egokitzea ezin bestekoa da. Hirian edo mendian, apartamentua edo zelaia duen etxe batean bizitzeak erabakia baldintzatuko du.

Gehiengoak argi du gustoko duen txakurraren itxura, ile luzea, motza, kolorea... Dena den, bat ala

bestea aukeratzeko ondorio ezberdinak dakartza. Esaterako, ile argiko arrazak, Dalmatak adibidez, ilea erraz galtzen du eta etxeke alfonbra edo besaulkian asko nabarmenduko dugu. Aldi berean, ile luzeko abereari, Golden Retriever edo Spaniel bati, apainketa ordu gehiago eman beharko dio. Honetaraz gero, Bulldog frantesak ez bezala, zeinek ile motza eta leuna duen, eguneroko lana izateaz gain, orrazia eta eskuila beharrezkoak dira.

Sexua dela eta, arra edo emea izateak baditu bere

ongi – gaitzak. Emea laisagoa eta gozoagoa izan arren, urtean bitan duen obara, hainbat kalteren bide izan daiteke. Batez ere, odoljarria eta arraren gain eragiten duen erakarpina dela eta. Arra bera, urduria goa izateaz gain, maizago azalduko da etxetik ihes egiteko prest. Hala ere, hezkuntza zuzena nahikoa da portaera egoki bat lortzeko.


Ez ahaztu erabakia hartu aurretik zure albaitariaren iritzia entzutea. Berak lagundu diezazuke zure txakurraren arraza egokiena aukeratzeko garaian.

AHOLKUA



Unai San Vicente
Albaitaria
Urretxu

AZURMENDI HARATEGIA



Victor Mendizabal, 2

☎ 943 88 47 65

ORDIZIA

San Inazio, 6

☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28

BEASAIN



Artesania · Opariak · Jantziak

Gabon zoriontsuak denoi!

K. Nagusia, 28

☎ 943 16 02 48

ORDIZIA

Eguberri zoriontsuak guztioi!





“ Helburua ikasleen heziketa eta formazioa geroz eta hobeto gauzatzea da ”

Zer suposatzen du Urrezko Q sariak jasotzeak?

Motzean esanda errekonozimendu bat da. Eusko Jaurlaritzak emango digun errekonozimendu bat gure eguneroko lanean darabilgun kalitateari. Baina atzean ahalegin handia dago, zortzi urteko ibilbidea. Kultura bat geureganatu dugu eguneroko lana sistematizatu, hobetu, berrikuntza bultzatu, sormena indartu eta sortzen diren arazoei aurre egiteko prestakuntza bat. Jakintzan oso garbi daukagu urrezko Q-a berez ez dela helburua, pozteko motiboa da, baina helburua, gure kasuan, ikasleen heziketa eta formazioa geroz eta hobeto gauzatzea da, hau da garrantzitsua.

Ikasleek zerbaitetan nabari al dute Urrezko Q-a izatea?

Ikasleek ez badute ezer sumatzen malo. Galderari erantzuna beraiek eman beharko liokete. Halere, sentitu edo ikusten ditudan pertzepzioak aipatuko ditut. Gure ikasleei entzuten diet berrikuntza asko dagoela, IKTak egunero eta naturaltasun handiz erabiltzen dituztela, irakasleekin harreman ona dutela, behar dutenean laguntza jasotzen dutela...etab. Bestalde gauzak hain ondo ez doazenen edo okertzen direnean, kalitatearen ezaugarria da beraiekin egotea, entzutea, eztabaidatzea eta elkarrekin irtenbideak bilatzea.

Eta irakasleek?

Irakasleen lana neurri handian ikaskuntza-aprendizaia da. Gure kalitate sistemak koherentzia eman dio arlo honi. Unitate Didaktikoetan eredu bera erabiltzen dugu, ebaluazio irizpide koordinatuak aplikatzen ditugu, talde lana bultzatzen du, inplikazioa sustatzen du. Egindako lana etengabe

berrikusi eta hobetzea bultzatzen du. Azkenik, ikastolako ikuspegia modu zabalagoan ikusteko eta parte hartzeko aukera eskaini digu.

Eta gurasoek?

Ez ahaztu gurasoak ere badirela kalitate-zeinuen ebaluatzaile. Gurasoentzat garrantzitsuen seme-alaben heziketa da. Gurasoek pertsonaren heziketa osoa edo integrala baloratzen dute, kriterioa duen pertsona izatea. Maila akademikoa baloratzen dute. Seme-alabak esku onetan daudela sentitu nahi dute. Bestalde, ikastola eta familiaren arteko harreman eta komunikazioari garrantzia ematen diote. Gurasoak ikastolako bizitzan parte hartu eta erabaki organoetan egoteari garrantzia ematen diote. Geroz eta garrantzia gehiago ematen diote zerbitzuei, jangela, haurtzaindegia, garraioari

Urrezko Q saria jasotzen duen Goierriko lehen ikastetxea izateak zer esan nahi du?

Kanpo ebaluaketa bat pasa, ez ahaztu oso exijentzia maila altua dela eta bidali diguten informea bidaltzea eta gainera Goierriko lehen ikastetxea izateak poztzen gaitu, zergatik ukatu. Baina esan dugu urrezko Q-a ez dela gure helburu nagusia. Guk badakigu jarraitu egin behar dela. Ondo prestatutako ikastetxea dela aurrean dugun maratoni luzerako. Urte hauetan kultura bat garatu da, inplikazioa, elkarlana, autonomia eta etengabeko hobekuntzan oinarritua. Gure helburu nagusia seme-alabei heziketarik onena eskaintzea da, dena merezi eta beharko dutelako.

ARRIETA

JATETXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

Chipie
Confetti
Levi's
Ikks



ttipi - ttapa
umeen arropa denda

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901



Lukusin enparantza, 6

943 08 51 61

ORDIZIA

GABONETAKO MENU BEREZIAK

ENKARGUZ

*Mariskoa
Txangurro betea
Marisko salpikoia
Marisko krema*

*Fritoak
Urdaiazpikoz betetako
esparragoak
Ontto pudina*

*Txangurroa
Porru eta ganbak
Onttoen Voulabena*

Ohizko platerak eta zuk eskatutako beste edozer

Tabakoaren aurkako legea: ez erretzaileen aldeko legea

Eerretzaileak ez direnak babesteko, kontsumoa prebenitzeko eta erretzen dutenei uzten laguntzeko helburuak ditu Espainiako Gobernuak indarrean jartzeko asmoa duen Tabakoaren Aurkako Lege berriak. Urte berriarekin batera izango da hori. Lege berriarekin, tabakoaren salmenta eta zigorrak gogortuko dituzte. Leku publikoetan ezingo da erre. Erretzaileentzako lekuak egokitu beharko dira. Lege honen eragina jasan dezaketen hainbat goierritarrekin izan gara, legeari buruzko iritzia jasotzeko. Dena den, erreportaje hau idazteko garaian, oraindik, informazio handirik ez zeukaten.

PSIKOLOGI KLINIKOA

 **ARGÍ** Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

 **biok** kudeaketa
fiskala
zerbitzuak kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

 **ZEGAMA OKINDEGIA**
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. Ordizia: Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. Lazkao: Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. Legorreta: Dorronsoro. Zegama: Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. Segura: Erosle. Idiazabal: Ahizpak. Ormaiztegi: Iñaki Erosle. Zumarraga: Rueda dendak. Legazpi: Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

 **Osinalde s.l.**

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 lgara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

 **IÑABE, S.L.**

IGELTSERITZA OROKORRA
Fatxaden berrikuntza
Egiturak (egurra - hormigoia)

Tel.: 943 883 829 - 943 882 875 - 649 813 670
Imaz-enea etxea - ZALDIBIA - itormujika@terra.es

2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, Tabakoaren lege berria martxan jartzeko asmoa dauka Espainiako Gobernuak. Abenduaren 15ean zen legea onartzekoa. Batez ere ostalariak, zain daude, kezkatuta, lege berria ezartzeak hainbat aldaketa egitera behartuko baitituzte.

Espainiako Osasun eta Kontsumo Ministerioak, lege berriarekin, "ez erretzaileek tabakoaren kerik gabeko aire garbia arnasteko eskubidea bermatu" nahi du. Horrekin batera, erretzeak eragin ditzakeen gaixotasunak ere nabarmendu nahi ditu. Eta azkenik, erretzen utzi nahi dutenei erraztasunak eman nahi dizkiete.

Lege berriak, mugak jarriko dizkio, tabakoaren salmentari eta hornikuntzari, kontsumoari, publizitateari, sustapenari eta tabakoaren patrozinioari.

Neurri berriak

Lege berriaren arabera, tabakoa 18 urtetik gorakoek erosi ahal izango dute. Orain arte, 16 urtean zegoen adin muga.

Tabakoaren Saltoki Sareetan (Estankoetan) eta baimendutako makinetan



bakarrak erosi ahal izango da tabakoa. '18 urtetik beharakoei debekatuta daukate tabakoa saltzea' eta 'Erretzeak hil egiten' du bezalako kartelak egon beharko dira agerian.

Erretzaileen kerik arnasten ez dutela bermatzeko, debekatutako lekuan erretzeagatik 600 euro arteko isuna jar dezakete. Edozeinek izango du galarazitako lekuetan erretzen duena salatze aukera.

Tabakoaren publizitatea egitea debekatu egongo da.

Erretzea debekatua

Lantokietan, osasun zentroetan, ikastetxeetan, estalita-ko kirol instalakuntzetan, publikoaren harrerara bide-

ratutako lekuetan, merkatal zentroetan, kultur zentroetan, liburutegietan, museoetan... ezin izango da tabakorik erre. 18 urtetik beharakoek sarrera duten dantzalekuetan ere ez. Horrekin batera, janariak prestatu edo saltzen diren lekuetan, igogailuetan, telefono kabinetan, kutxazain automatikoetan, garraio publiko guztietan eta gasolindegietan ere debekatuta egongo da erretzea.

Erretzea baimenduta

Erretzaileentzako guneak egokitu ahal izango dira, ondorengo lekuetan: gizarte gaietarako zentroetan, karteletan, hoteletan, 18 urtez beharagoentzako baimendurik ez dauden dantzalekuetan, tabernetan, jantzetan, 100 metro karratu edo gehiagoko establezimendu itxietan, antzokietan, zineetan, ikuskizun publikoetan. Horiekin batera, autobus eta tren geltokie-

tan, portuetan eta aireportuetan.

Erretzaileentzako guneak ondo seinalaztuta egongo dira, fisikoki bereiztuta eta aireztapen sistema bereziarekin. Hauek, 8 hilabete epea izango dute egokitzapenak egiteko.

100 metrotik beherako establezimenduek erabaki egin beharko dute erretzaileentzako baimendutako lekuak izango diren ala ez. Lokal bakoitzak, garbi adierazi beharko du, ondo ikusten den lekuan, erre daitekeen ala ez. Leku horietan, ezingo da 18 urtetik beherakorik sartu.

Arau-hausteak eta zigorrak


Tabakoaren Aurkako Lege berriak, arau-hausteak eta zigorrak ere zehazten ditu. Honela, adin txikiko batek araua hausten badu, gurasoak edo legezko tutoreak izango dira arduradun.

Hiru arau-hauste ezarriko dira: arinak (600 euro bitartekoak), larriak (610 eta 10.000 euro bitartekoak) eta oso larriak (10.001 eta 600.000 euro bitartekoak).

Isunaren zenbatekoa zehazteko arau-hauslearen datu hauek hartuko dira kontuan: gaitasun ekonomikoa, osasunarentzat zenbaterainoko kaltea eragiten duen, eragin soziala...

Inspektzioak eta arau-hauslearen isunak autonomi erkidego bakoitzari dagozkio.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2002an, tabakismoaren ondorioz, 2.511 pertsona hil ziren.



Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 43 01

KARROZERIA



“Gehiegizko legea da”

2006ko urtarrilaren 1ean Tabakoaren Lege berria indarrean jartzen bada, hainbat tokitan egokitzapenak egin beharko dituzte. Zenbait erabaki hartu ere bai. Hurrengo lerrootan, 100 metro karratutik beherako taberna-jatetxe baten, estanko baten eta ikastetxe baten iritzia jaso dugu.

Urtarrilaren 1a gainean dagoenean, batere informaziorik ez dutela saltzen dute ostalariek. Komunikabideen bidez jaso dute dakitena. Inongo jakinarazpenik ez dutela jaso esan digute. Beraz, galderak dira nagusi.

100 metro karratu baino gutxiagoko taberna edo jatetxeek adibidez, erabaki egin beharko dute, tabernan erre ahalko den ala ez. Erabaki hori hartu behar izanez gero, “guk erabaki bat hartzekotan, erretzea baimendutako taberna izatea erabakiko dugu. Tabakoa saltzeko makina daukagu, hiru urterako lizentzia erosita. Beraz, saldu eta ez erretzen uztea? Baina erretzaileentzat taberna izanda, haurrek ezingo lukete sartu. Beraz, bataioak eta jaunartzeak ditugunean, haurrek kanpoan gelditu beharko al

dute?”

Beraz, Tabakoaren Legea gehiegizkoa iruditzen zaie, “debekuak ez zaizkit ondo iruditzen. Kanpainak egitea egokiago iruditzen zait. Bakoitzak erabakitzen du erre ala ez, bakoitzak badaki tabakoak zein kalte eragiten duen”.

Estankoetakoak ere beldurrez daude, datozen hiru hilabeteetan legea nondik nora joango den ikusiko omen da. “Erretzaileak beldurrez daude, tabernariak ere bai... Erretzen, non erre beharko ote duten galdetzen dute. Ez dut uste legearekin, erretzaileek utziko dutenik. Izugarrizko zalaparta sortu liteke”.

Zirkularra jaso dute Es-

tankokoek, hiru neurri berriekin: 18 urtetik beherakoei ezin izango zaie tabakorik saldu (orain arte, 16 urtean zegoen adin muga); erakusleihoetan ezingo da tabakorik jarri; eta 20 zigarrorako paketeak saldu beharko dira. “Batez ere gazteek erosten dituzte tabako pakete txikiak. Baina aldi berean, orain, gero eta tabako merkeagoa merkaturatzen dira”, diote..

Beste hausnarketa bat ere egin du: “tabakoa txarra bada, zergatik egiten dute? Zergatik ez dute kentzen? Jakina, atzetik diru asko dago”.

Lege berriaren arabera, ikastetxeetan ez dute erretzerik izango, ez irakasleek eta ez ikasleek. Orain

arte zenbait ikastetxetan batxilergoko ikasle erretzaileentzako txokoak egon badira ere, aurren, ikasturte hasieratik, legea zetorrela ikusita, txokoak kendu egin dituzte. Beraz, ikastetxean ez dut erretzerik izango ikasleek; eta irakasleek ere ez.

Prebentzioan lan egiten jarraitzeko asmoa azaldu dute ikastetxeek.

Legea nola ikusten duen galdetuta, honela erantzun digu ez erretzaile batek: “erretzaileentzako gehitxo izango da, baina ez erretzaileentzat bazen garaia kerik gabeko guneak edukitzeko. Ospitaletakoa adibidez, erabat kontrastankorra izan da orain arte”.





● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

elektragailuak

Elektragailuetan azken berrikuntzak

Induziozko plaka bitrozeramikoak




Bakarrik garbitzen diren labe pirolitikoak

Arropa garbigailu elektrikoak



0°-ko hozgailuak

Ontzi garbigailu isilak



Neurri guztietako izotzgailuak

Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik



Goierriko Baratza

Bertako produktuen
eta produktu ekologikoen
salmenta puntua Ordizian

Dani Etxeberria eta Txisku bertako produktuak bultzatzeko helburuz, eta horrekin batera produktu ekologikoak, Goierriko Baratza denda

ireki zuten irailean, Ordizian. Produktoreei salmentarako lekua eta kontsumitzaileentzat erosteko lekua eskaini nahi die, azoketatik haratago joanez.

AMEB



Sagardotegia

Abenduaren 23 gauetik
urtarrilaren 2ra arte itxita

TXOTX
denboraldiaren
irekiera
urtarrilaren 7an

Egun horretan sarrera doan
eta gauda trikitilariak alaitua

Zubierreka, 9 © 943 16 25 23 LAZKAO

VOLVO

ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Zer eskaintzen du Goierriko Baratzak?

Denda bi zatitan banatuta daukagu: alde batean, Euskal Herriko produktuak dauzkagu, artisau eran egindakoak. 40 bat produktore izango dira; eta bestean, produktu ekologikoak. Inguruko produktoreekin lan egiten saiatzen gara, baina zoritkarrez ez dago produkzio handiegirik.

Egia esanda, hasieran, bertako produktuen salmenta puntu bezala bakarrik planteatu behar genuen. Baina konturatu ginen, zenbait produktore tradizionalen chip-a aldatzen ari zela, eta produkzio ekologikoan ikusi dutela beste irtenbide bat. Orduan, beste aukera bat ere ikusi genuen arlo ekologikoan. Baina oso mundu zabala da. Beraz, bi ereduak uztartzea erabaki genuen, osagarri ere badirelako.

Zein helbururekin ireki duzue?

Gertatu izan zaigu, bertako produktuak erosi nahi eta ezina. Hori baserritarren gabezia ere izan da, ez baitute aukerarik izan azokatik kanpo saltzeko. Beste era-kundeek ere falta nabaritu dute. Azoka oso gauza mugatua da. Egun eta ordu zehatz bat izaten du eta gaurko bizimoduarekin zaila da bertara joatea. Beraz, aukera zabalagoa eskaini nahi dugu.

Irailean ireki zenuten Goierriko Baratza denda, zein balorazio egiten duzue?

Hasierako bi asteetan bo-om-a izan zen. Handik aurrera, nobedadea pasatuta, jaitsi egin zen. Baina orain, ikusten dugu jende berria badatorrela. Konpromiso-



Aukera zabala eskaintzen du Goierriko Baratzak denda, produktu ekologikoetan eta bertako produktuetan.

dun jendea da. Hala eta guztiz ere, balantze bat egiteko goiz da. Urtebete pasatu beharko da. Baina hori, bai jende berria etengabe dator eta gorako progresioan doa.

Bertako jendea al da?

Horrelako dendarik ez dago inguruan, gertuenekoak Tolosan daude. Orain, jende hori hona etortzen hasi da. Eskualde osokoak etortzen dira. Kultura ekologikoa dutenak, elikadura makrobiotikoan sartuta daudenak... etortzen dira.

Zein da bezeroen perfila?

Hiru mota bereiztuko nituzke: batetik, sentsibilizazioa daukana; bestetik, familia

gazteak, haurrentzat elikadura osasuntsuagoa nahi dutenak; hirugarrena, gaixotasun baten ondorioz, esperientzia txarra izan eta elikadura zaintzen hasi direnak. Laugarren taldean, lagunak sartuko genituzke.

Elikadura zaintzeko gero eta sentsibilizazio handiagoa al dago?

Orain arte ikusten dugu, jendeak ez diola garrantzia handiegirik ematen elikadurari. Baina jendea aldatzen ari da, zenbait gaixotasunengatik. Dena den, bertako edo gertuko produktuekiko sentsibilizazioa ere badago.

Horrelako dendetan

erostea garestiagoa dela esaten da.

Garestiagoa bada, baina kontutan hartu behar da nola produzitzen diren produktu hauek. Produkzioa naturalagoa da, geldoagoa.

Horrelako dendetan, behar dena erosten da, gehiago begiratzen zaio. Gainerako dendetan, askotan erosi behar ez den gauza asko erosten da, behar dena baino gehiago. Tentazioetan beti erortzen gara.

Ordizian denda hau irekitzea kasualitatea da, edo atzetik zerbait ere badago...

Kasualitatea ez da, lokala bertan baikeneukan, baina aldi berean, egia da, Ordizian badagoela azoketarako beste sentsibilitate bat.

Beste herri batzuetan, kontsumitzaileen elkarteak ari dira sortzen, baserritarrei zer kontsumitu nahi duten esan eta elkarlanean aritzen direnak.

Martutenen, antzeko zerbait ere badago eta elkarteko bazkideek daukate bakarrik erosteko aukera. Baina nahiko mugatua da, elkarte-kidea izan beharra dagoelako. Azkoitian ere bada beste horrelako zerbait. Hemen ere, ari gara horrelako zerbait pentsatzen. Izan ere, guretzat oso zaila da, kantitateak kalkulatzeko. Ez litzateke itxia izango, irekia bai-zik, beti ere kontuan izan da, ekimen pribatua dela. Bazkideek beharbada zenbait abantaila edukiko lituzkete... Lantzen ari gara, baina hasieratik ez genuen horrekin hasi nahi, denda pixka bat asentatu arte.

Sentsibilizazioa bultzatzeko ekimenenak egiteko asmorik ba al daukazue?



OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48

Egia esan, ideia asko dauz-kagu. Ez dugu denda soil bat izan nahi, gehiago eskaini nahi dugu. Produktoreekin zuzenean lan egin nahi dugu, hitzaldiak eta kanpainak antolatu... Jendeak pentsatuko du gure poltsikora begira ari garela, baina ez da horrela. Guk denda hau ireki genuenean, ideia bat argi geneukan: Goierri ez dugu baserririk gabe ikusten. Beraz, horren inguruan ere lan bat egin behar da. Hiru hilabete dira ireki dugula eta pixkanaka joango gara. Elkartea sortuko balitz, prezioak merkeago lortzeko aukera ere izango litzateke, jendeak konpromisoa hartuz gero. Bezeroen inplikazioa ere behar dugu. Gu irekita gaude. **Laguntzarik jaso al duzue denda hau irekitzeko?**

Laguntza bai, baina laguntza ekonomikorik ez. Guztiek ikusten dute horrelako zerbaiten beharra. Goime-nekin adibidez, baserriarrekin harremanak egin ditugu eta hainbat aholku ere eman dizkigute. Nekazal sindikatuek beti esan dute, tarteko zerbait falta dela, produktorea eta eroslea lotuko dituen. Tarte horretan, gu jarri gara Goierri. Bitartekaritza lan hori ez zaigu gehiegi gustatzen, baina azkenean, beharrezkoa izaten zenbait kasutan. Goiekitik, beste edozein negozio irekitzeko ematen duten laguntza jaso dugu.



Aukera zabala

Goierri bertako produktu eros daiteke bertan: Ataungo Pili Eskisabelen barazki ekologikoak, Ezkio-Itsasoko Xabi Akizuren fruta ekologikoak, Lazkaoko Esteban Atxaren arrautzak, Aramako Iturriotz baserriko letxugak eta babarrunak, Beasaingo Atari-Eder baserriko patatak eta tipulak, Mutiloko Agirieta baserriko tomateak, Lazkaoko Iztueta baserriko behi-esnea, Gabiriako Amelia Jauregiren argi-gazta eta ardi-esnea, Alzagako Iñaki Gorostegiren ahuntz-gazta, Beasaingo Pagorriagako orein produktuak, Ezkio-Itsasoko Jesus Debaren odolkiak eta mondejuak, Olaberriko J.A. Munduateren piperminak, Zeraing ukenduak eta mermeladak eta Lumagorri oilaskoak.

Produktu horiez guztiez gain, ezta, argizaria, intxaurrak, enpanadillak, haragia, ogia,

opilak, ahatea, jogurtak, esnekiak, kontserbak, txerriak, zumoak, Euskal Txerriaren produktuak, kiwiak, sagardoa eta beste hainbat eta hainbat produktu ekologiko.

Prezio justoko hainbat produktu ere aukeran daude Goierriko Baratzan: kafeak, azukreak... Janari prestatuek ere badute bere tarteak.

Gabon saskiak

Gabon garai honetan jan-edanak protagonismoak garrantzia berezia hartzen duen garaian, osasuntsu jateko aukerari garrantzia ematea eskatu dute Etxeberriak eta Txiskuk. Oparitzerakoan ere bai: Gabonetarako saski bereziak prestatuko dituzte, bertako produktuekin edo eta ekologikoe-kin, diru-kopurua zehaztuta.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



INSTALATZAILE OFIZIALA



LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxes: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ORDIZIAN ETA
BEASAINEN, KALITATERIK
ONENAKO
ERAIKUNTZAK:

ETXEBIZITZAK,
APARTAMENTUAK,
LOKAL KOMERTZIALAK ETA
GARAJEAK


urte berri on!



s.a.

☎ 943 88 49 50

Filipineta, 13 - behe ORDIZIA



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

Janariaren bidez zoriona zabalduz

Senen Gonzalez



*Espainiako
pintxo taberna
onenaren saria
jaso berri du*

Beasaindarra da Senén Gonzalez, Abdon Gonzalez sukaldariaren semea. 29 urte ditu eta duela zazpi urtetik, Gasteizko Sagartoki sagardotegi-erretegiaren nagusia da. Sari ugari jaso da pintxoetan baina azkena jaso duena

da esanguratsuen Gonzalezentzat. Bera zoriontsu denez, bezeroak ere zoriontsu izatea da bere helburua. Orain, Ibiza uhartean eraikitzekoa duen hotel-jatetxean jarriak ditu begiak eta burua, udaberrian erabat maitemindu zuen uhartean.

JATETXEA

MANDUBIKO BENTA
Tel. 943 88 26 73

JATETXEA

GRÁFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

Azaroaren 22an, Donostia-ko Kursaal jauregian, Espainiako Pintxo Taberna onenaren saria jaso zuen Senen Gonzalez beasaindarrek. Gasteizko Sagartoki sagardotegi-erretegiaren nagusia da Senen, Iñaki Rodrigo eta Patricia Borja bazkideekin batera.

Gustura azaldu da beasaindarra, orain arte jaso duten sari garrantzitsuena baita. "Ez da pintxo bakarria saritzen, ordu erdian 5 pintxo egin behar izan genituen. Aurretik lehiaketarako izena eman behar denez, aurretik aztertzen dute taberna bakoitza. Horrek esan nahi, Espainiako 10 pintxo taberna onenak aukeratu dituztela".

Espainiako Patata Tortila lehiaketa ere jokatu zen Gastronomía kongresu berean, eta hemen, bigarrenak gelditu ziren. Oso gutxigatik, baino bigarrenak gelditu gara. Irabazlearena, oso ona zegoen, gurea ere bai, baina azkenean, guk tortila frantzea formako tortila egin genuen eta punturen bat jaitsi ziguten. Baina gu oso gustura gaude".

Enbor bereko ezpala

Izakeraz ere halakoa delako, sukaldean sortzea eta eraikitzea gustatzen zaio Senen Gonzalez. Aitak sukaldaritzan oinarria erakutsi dio. "16-17 urterekin aitaren jatetxean hasi nintzen sukaldean lanean. Aitak era-

kusten zidana nire erara moldatzen nuen. Antxoak errebozatuta esaterako, nire aitak, irin eta arrautza askorekin egiten zituen eta niri finagoak gustatzen zitzaizkidan eta ez nituen hainbeste egiten... Beasainen

denbora batean aritu nintzen, baina ez nuen arrakasta handiegirik izan. Gauza bat egin eta ez zen gustatzen. Gaztea nintzen eta buroa txori asko nituen eta agian ez nuen hainbeste interesez jartzen. Bezeroen al-

detik ere agian ez nuen erantzun onik jasotzen".

Oinarria aitarengandik jaso bazuen ere, batez ere han eta hemen jasotakoarekin osatu du bere formazioa beasaindarrek. irakurritz eta entzunez, ideiak jaso eta es-



Plateretik pintxora

Pintxo berri bat, "lortu nahi den kontzeptuaren ideien arabera" lortzen da. Lehiaketara aurkeztutako bi pintxo, dekonstrukzioak dira. Hau da, plater bat hartu, eta formak eta texturak aldatu ditugu, mokadu batean edo hirutan jateko pintxoak lortu arte. Dekonstruzio bat, arrautza frijituak patata frijituekin da. Betiko plater goxo hau mokadu bat jateko eran prestatu dugu, enpanada batean bilduta".

Onddo lasaña pintxoak ere aurkeztu dute, onddoari omenaldia egin nahi izan baitiote. "Onddoak basoan biltzen duzuen izaten duen usaina, hezetasuna, goroldioa... guzti hori transmititu nahi izan genuen. Pintxo honek bi zati ditu: bate-



tik, onddo izozkia, onddoen esporekin egina eta basoaren usain guzti hori mantentzen duena; bestetik, onddo gordina, olio eta ozpindua, lasaña eran, onddo kremarekin...

Beste pintxo batean, bakailaoa omen du dute. "Espainiako bakailao txapelketarako prestatu genuen platera da".

Gu lekuko, dena oso goxoa.

Gaztelu

Zorionak eta Urte Berri on!

Iturgintza

Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN



A SEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

e txekin

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

periementatuz. Donostian sukaldari eskolan aritu zen baina ez auen bukatu. Izeneko sukaldarien etxeetan ere ez da aritu. Nolabait, autodidakta da. "Sukaldaritzako liburu gehienak dauzkat eta Kongresoetara ere joaten naiz, eta asko ikasten da. Munduko sukaldari ezberdin asko elkartzen dira eta ideia asko jasotzen ditut. Oso polita da gastronomia elkarbanatzea, kongresoetan hori gertatzen da. Ideietatik jakinduria lortzen dut".

Beasaingo esperientziaren ondotik, soldadutzara joan zen Gasteiza. Ibizara ere joan zen. 21 urte zituela, Gasteizen, Alaveseko Manuel Pablarekin batera, Sagartoki sagardotegia hartzeko aukera izan zuen. 22 urterekin, Sagartoki erosi, eta bere ametsariko bat bete zuen.

Sukaldaritzak tradizionala eta originala


Sagartokin, bi sukaldaritzak mota uztartzen ditu Senekek: euskal sukaldaritzak tradizionala eta originala, mi-

niaturazkoa.

Beti produkturik onenak erabiltzen saiatzen da. "Mendabiako emakume batek adibidez, alkatxofak, esparragoak, piperrak landatzen dizkigu... kontserbarik ez dugu erabiltzen".

Idiazabal Gazta ere eskaintzen du, saldu ere bai. "Gure-gurea den produktua da eta kanpotik jende asko etortzen denez, erakusteko leku ona da, asko gustatzen da eta. Beasaingo odolkiarekin ere lan egiten dugu, plater soil bezala, edo babarrunekin nahastuta. Hemen dena den, arrozezko odolkiak gehiago gustatzen dira".

Euskaldun izateak sukaldari bati laguntzen ote dion galdetuta, euskal sukaldaritzak duen ospeaz ondorengo hausnarketa hau egiten du: "niri euskal sukaldaritzak ez zait gustatzen. Orain arte eta oraindik, sukaldaritzako krak horiengatik, Euskal Herrian sukaldari on gehiago dago. Euskal Herria sukaldaritzaren erreferentzia da eta jende asko



Motzean

Plater bat:

Arrautza frijiutak patatekin. Agian, txikitan, etxean gehienetan jandako platera izango da. Txuleta on bat ere ikaragarria da.

Edari bat:

Ura gasarekin.

Postre bat:

Nire amak prestatzen dituen flana edo gazta tarta.

Nori prestatuko zenuke otordu bat:

Edozein pertsona oneri, nik egiten dudana ulertzen saiatzen denari.

Sukaldari bat:

Sukaldari on asko dago. Askok nire irakasleak izan diren guztiak. Beraien etxeetan ez naiz ikasten aritu baina kongresoetan entzun eta asko ikasi dut. Batez ere euskaldunak, Berasategi, Arzak, Salaberri, Subijana... Idatzi duten guztia daukat... Bakoitzak bere nortasuna dauka eta bakoitzak dauka zer erakutsia, eta dena da garrantzitsua. Ez naiz bakarrarekin gelditu da.

Sukaldaritzaren oinarria aitarengandik jasoa badu ere, batez ere han eta hemen jasotakoarekin osatu du bere formazioa beasaindarrak

Verlo
Zorionak eta Urte Berri on!
ILEAPAINDEGI MISTOA SOLARIUMA
Joan Iturralde, 5-7 (solairu-artea)
Tfnoa.: 943 16 11 05
BEASAIN

MUGAR K21 KALITATEA
ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENAK
aberiak, atezain automatikoak, TB antenak, pabiloiak, dendak, proiektuak, berrikuntzak orokorrean...
E-mail: mugar@mugar.net
web-gunea: www.mugar.net
Euskal Pilota, 4 San Inazio, 8
☎ : 943 160 240 ☎ : 943 888 907
ORDIZIA BEASAIN
Faxa: 943 888 688

horretaz baliatzen da eta nire ikuspegitik ez dute mairarik ematen. Euskal sukaldaritzak saltzen du baina nik ez dut erabiliko euskal sukaldaritzaz soila”.

Zoriontasuna zabaltzea helburu

Sukaldari bezala zein helburu duen galdetuta, zera erantzun digu beasaindarrak: “ez daukat helbururik, zoriontsu izan nahi dut. Nik Ibizan, biziarteko proiektua egin nahi dut, bizitza modu baterako proiektua. Nire etxera datorren bezeroa hunkitzea, emozionatzea nahi dut. Bizitzeko eta lan egiteko gustuko dudana leku bat eraiki, eta datorren jendea hunkitzea besterik ez dut nahi”.

Bizitzan egindako aukerarekin zoriontsu dela aitortu du Senenek eta zoriontasun hori besteenganatu nahi du. “Ni zoriontsu izanda, besteak ere zoriontsu egin nahi ditut, nik dakidan moduan, hau da, janaria prestatuz. Nire inguruan jendea zoriontsu egitea gustatzen zait, ondo janean eta ingurune politean”.


Ibizako ametsa

Gasteizko Sagartoki jatetxearekin dagoeneko amets bat bete badu ere, orain, beste amets bat gauzatzeko ahaleginetan dabil. Ibizan, mendialdeko herri txiki batean jarriak ditu begiak. Gehiegi aurreratu nahi ez badu ere, hotel-jatetxe txiki bat eraikitzeke asmoa dauka. Bertan gustura bizi, ikasi eta lan egingo duena. Landareak ere landatuko ditu. Bere biziarteko proiektua izatea nahi du Senenek. “Ibizan, 6-8 hilabeteko denboraldia izaten eta hortik aurrera, hobetzen saiatu nahi dut, karta, baratza... Denbora bat lan egiteko eta beste denbora bat, hobetzeko, ikasten joateko. Kongresoetara joan eta bidaiatu egin nahi dut beste sukaldaritzaz batzuk eza-gutzeko”.

Ibiza uharteaz erabat maitemindua dagoen beasaindarra da Senen Gonzalez. “Udaberrian, erabat maitemindu nintzen Ibizaz. Oso polita da. Telebistan agertzen ez den beste Ibiza oso polit bat dago, festa eta droga baino askoz ere gehiago da. Kultura asko dago, artista asko bizi da bertan, munduko zati txiki asko elkartzeko dira Ibizan. Neurri politeko irla da. Baina gastronomia pixka bat falta da”, zehaztu du beasaindarrak.

Presarik ez du, poliki eta ondo gauzatu nahi baitu ametsa. baina laster joango da Ibizara aldera. Lehenengo, Sagartoki txiki bat irekiko du eta taldea osatzen joango da, “horrelako proiektu batean alde lana erabat garrantzitsua baita”.

Euskal sukaldaritzaz bai, baina, nazioarte mailako teknika eta teknologiarekin garatua prestatuko du Senenek Ibiza aldean. Ibizako mendialdeko herri txiki hori, pintxoaren erreferentzia izatea nahi du.



© 943 88 40 56
J.M. Iturrioz, z/g
BEASAIN

© 943 65 55 77
Nafarroa Etorb., 10
TOLOSA

apaindura-pinturak • apaindurak • eskulanak

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi!

Aranburu

OINETAKOAK

☎ 943 880 127 Kale Nagusia, 36 BEASAIN

Xikel

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Eguberri on!




☎ 943 16 16 06 - 619 770 600

Urdaneta, 41 **ORDIZIA**



Ordiziako Tabernarien partetik

Eguberri zoriontsuak guztioi!



Axio Araña

*Ordizia errugbi taldeko
entrenatzaileak 30 urte
daramatza pasiotzat
duen kirolean*

Ordiziako errugbiaren historia isladatzen du Axio Arañak. Taldea duela 32 sortu zen eta berak 30 urte jarraian daramatza bertan. 20 urtez jokalaria izan ondoren, azken 10etan taldeko entrenatzailea da. Aurten Kitmar Ordizia urte historikoa ari da bizitzen, lehen aldiz Espainiako gorenko mailan ari baitira jokatzeko. Honek komunikabideetan izan duen oihartzunari esker geroz eta jende gehiago ari da errugbira hurbiltzen.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr.

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.

R.P.S. 213/97

BEASAIN

Ordiziako taldea urte garrantzitsua ari da bizi-tzen.

Bizitzen ari garena gozatu egin behar da. Goiko mailan gaude eta hor mantentzea oso zaila da. Azken urteetan partida gehienak irabaztea tokatu den bezala aurten gehienak galtzea tokatuko zaigu. Talde indartsuago eta profesionalagoen aurka jokatzen dugula kontutan hartu eta gozatu egin behar da. Gogo eta ilusio handiarekin gaude baina ikasteko asko dugu.

Gauzak ondo egin eta mailari eusten saiatu behar gara, baina aurten, datorren urtean edo hemendik bi urtera jaistea tokatzen bada zer egingo dugu ba. Jokalariak, ikusleak, zuzendariak... ohorezko maila honetaz gozatzen jakin behar dute.

Errugbia asko aldatu al da urte hauetan?

Lehenengo jokalariei iruditzen zaie betiko joko dela, baina, asko aldatu da. Hobeto entrenatzen da, azkarrago jokatzen da, jokoa fisikoa goa da, teknika aldetik ere dedikazio gehiago eskaintzen zaio, talde joko gehiago dago, prestatuagoa. Garai batean gehiago inprobisatzen zen.

Arauak aldatzen direnean ere ikuskizun gehiago ematea bilatzen da, baloia gehiago mugitzea. Lehen talde indartsuek joko itxia egiten zuten, bultzeta eta borroka asko, baina, ikuskizun



gutxi.

Trebijano zelaia ere garai batetik asko aldatu da.

Eta fruitua jaso da. Nik uste dut lehenengo mailan egoite baldintza egoki batzuen ondorio dela. Lehen zelaia zegoen bezala inoiz ere ez genukeen lortuko. Jokatzeko, animatzeko, ikuskizuna izateko... denerako da hobea. Orain taldeen koloreak ere ikusi egiten dira. Lehen gogo asko baina kalitate gutxi zegoen, baldintza haiekin ezinezkoa zelako. Txikitatik jokatzen ari direnak 16 urterekin oso ondo jokatzen dute eta horretan zer ikusi handia du zelaiaren egoera onak.

Noiztik zabilta errugbian?

Duela 30 urte, 14 urterekin, hasi nintzen. Maisu batek

animatuta Beasaingo lagun batzuk probatzera etorri ginen. 'Engantxatu' ginen eta gaur arte. Batzuk lehenago besteak beranduago uzten joan dira baina nik hemen jarraitzen dut.

Jokatzeko nire garaia iristen zela ikusten nuen eta taldeak entrenatzailea behar zuela ere bai. Pentsatzen nuen bi edo hiru urte egon eta atzetik beste norbait etortzean edo nekeak bultzatuta utzi egin beharko nuela, baina, 10 urte pasa dira eta hemen jarraitzen dut. Norbera konturatzen da noiz dagoen soberan, jokalariek zurekin ez daudela gustura edo zer erakutsi handirik ez duzula, baita etxeko egoerak edo lanekoak ere bultzatzen dezake uztera. Niri hori denak on-

do pilatu zaizkit, nire emazteari esker nago hemen, berak kontra egin izan bazidan aspaldi utzia izango nukeen.

Nik errugbia bizi egiten dut, pasioarekin bizi ere. Ez dakit zenbat denboran jarraituko dudana, mutilak aspertuko dira edo nik ez dut zer erakutsirik izango. Zenbat eta gorago zailagoa da jarraitzea baina ni ikasten saiatzen ari naiz, gauza berriak ekartzen, orain Fran Huertasen laguntza dut... Emaitez ere lagundu egin digute, azken 2 edo 3 urteetan igoerekin asko disfrutatu dugu.

Zer da gogorragoa, jokatzea ala entrenatzaile izatea?

Dedikazio gehiago entrenatzailearen lanak eskatzen

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurritan


Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Entrenatzaile izateak beste satisfazio batzuk ditu. Ziur nago gauzak ondo edo gaizki ateratzen direnean, barrutik, nik jokalariek baino poz edo nahigabe handiagoa hartzen dudala.



du. Jokalariak askoz ere gehiago gozatzen du eta horrela izan behar da. Entrenatzaile izateak beste satisfazio batzuk ditu. Ziur nago gauzak ondo edo gaizki ateratzen direnean, barrutik, nik jokalariek baino poz edo nahigabe handiagoa hartzen dudala.

Partidua bukatu eta etxera iristean beti ari naiz pentsatzen hurrengo astean zer nolako entrenamenduak egin behar ditugun, mutilak nola motibatu... Grina hori beharrezkoa da, hori galtzen duzunean uzteko garaia dela erakusten du.

Beraz, lotura handia da entrenatzaile izatea.

Edo lana ondo egiten duzu edo ezinezkoa da. Bai hemen, baita beste talde askotan ere, urtero entrenatzaile aldaketak izaten dira. Zaila baita lan hau: tentsioa, jokalariekin harremanak, beti trago txarren bat izaten da,

asko dedikatu behar zaio, lan orduetatik kanpo egin behar...

Zer eman dizu zuri errugbiak?

Nik uste bizitzeko modu bat dela. 14 urterekin hasi nintzen eta oso lagun onak ditut bertan. Zaletasunez hasien zara, baina, denborarekin pasio bihurtzen da. Momentu onak eta txarrak barru barrutik bizitzen dituzu. Niretzat zerbait naturala da.

Zein izan da momenturik txarrena?

Zaila izan zen jokatzeari uztea. Ikusten nuen ezin nuela asko iraun eta taldeari laguntzeko beste moduren bat aurkitu nahi nuen.

Gero ohorezko B mailara igotzeko ahaleginean, izan ziren lortu ez genuen urte batzuk eta oso zaila izan zen. Uste genuen taldea prest zegoela igotzeko eta play offetan ez genuen lortzen. Berriz behetik hasi

beharra gogorra izaten zen.

Hor goian ibili ahal izateko atzerritarrek ekartzearen aldeko apustua egin zenuten.

Bai, hasieran ukrainiar batzuk ekarri genituen. Ikusten genuen ohorezko B mailara igoera lortzeko oso gutxi falta genuela eta gabezi hori estaltzeko ekarri genituen. Profesionalak ez garenaz harreman pertsonalak garrantzi handia dute eta haien esperientzia txarra atera zen. Bizitzan bezalaxe, honetan ere, esperientzi txarretatik ikasi egiten da. Ondoren, nahi gabe sortu zen Marcos argentinarra ekartzeko aukera, eta gaur arte, hemen jarraitzen du. Harrezkero beste bi ekarri ditugu, baina, Marcosek bere garrantzia du taldean. Gehiago ekartzera ez dugu jo, esperientzia txarrak ere izan ditugu eta profesionalak ez garenaz zaila egiten

da. Orain bi argentinar ditugu eta besteren bat ekartzeko gauza asko ukitu behar dira: langilea den edo ez, zer dakien egiten, lana bilatu behar zaio, legeztatzea ere oso korapilatsua da... Aurtan taldea bertako mutilekin indartzeko aukera izan dugu eta hobea izan da. Eibartik bi jokalaria ekarri ditugu eta askoz errazagoa izan da hauek taldera moldatzea.

Harrobia lantzen duzue eta zaila al da goi mailako jokalariek ateratzea?

Lehenago nahiko ahaztuta egon bazen ere, zenbait taldekideren lanari esker badaramatzagu bost bat urte lan handia eginez. Igandero txikienak etortzen dira eta oso ondo ari dira. Aurreko urteetan egon den hutsune hori dela eta orain jubenil mailan dugu jokalaria eskasia. Beraz, urte batzuetan zaila izango da jokalaria



Iñausti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZEH. MOLEBARTIA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ORKI

Opariak
Arropa osagarriak

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5
☎ 943 88 10 50
BEASAIN

ainaraetxeberria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

onak lehen mailara igotzea. Atzerritarrak ekartzen hasi ginenean garbi ikusten genuen zein zen bidea, lehen maila kanpoko jokalariekin indartu eta aldi berean harrobia zaindu etorkizuna ziurtatu ahal izateko.


Lan zaila da. maila ba-koitzean taldea osatzeko 20 mutil behar dira eta hori urtero lortzea zaila da. Kirol eskolarrean ere ez gara sartzen, beraz gaztetxoak errugbian jokatu nahi badu derrigorrez guregana etorri behar du, eskolan ez diote erakusten. Umeak hurbiltzen dugu lanik zailena.

Kirol gogorraren fama izanik, gurasoek nola ikusten dute bere umeak errugbian aritzea?

Hori ere ari da aldatzen. Lehen taldea hor goian ibiltzean, telebistan edo egunkarietan asko ateratzen gara. Hor ikusten dute kirol bizia dela, koloretsua, maila ona dagoela, jende asko etortzen dela partidak ikustea. Horrek ilusioa pizten du eta kirol gogorra edo agresiborearen irudia hausten du. Jendea ikustera etortzen bada gustatzen zaielako da, eta datozen umei probatzeko gogoia pizten zaie.

Goierriin maila gorenean ari den kirol talde bakarra zarete. Horrek eskatzen duen babesari sentitzen al duzue?

Goiko mailan gaudenez inoiz baino ikusmin handiagoa sortu dugu. Baina, oraindik oso Ordiziako tal-



Errugbi zelaia

Errugbi zelaiarekin arazoak dituzte Ordizia errugbi taldekoek. Datorren urtean belar artifizialeko zelaira pasatzekotan dira eta horrek sortzen dien buru hausteaz gain, "lehen zelaiari kasu asko egiten ez baziote, aurren, oraindik eta gutxiago. Gu ari gara pixka bat zaintzen baina..." dio Axiok. Aldaketa bera ere ez dute gehiegi ulertzen: "Oraingo errugbi-zelaiak CAFena da eta balitz CAF-ek behar duela eta bidali egin nahi gaituela ulertuko genuke. Baina arazorik ez badago, zergatik ezin dugu hemen jokatzeko jarraitu? Instalazioa martxan dago ez dago gastu berezirik egin beharrik".

Belar artifizialezkoak entrenatzeko aukera gehiago ematen ditu, baina jokatzeko garaian okerragoa omen da. Orain dela gutxi Madrilen lagun arteko partidua

bat jokatu zuten belar artifizialean. Probatzeko gogoarekin joan ziren bertara, baina, "belar naturalarekin ez du zer ikusirik. Jokalariak kexati atera ziren, oso gogorra da eta belarrak betetzen duen papera ez du artifizialak betetzen. Artikulazioek gehiago sufritzen dute eta 'rozamendu' gehiago egiten du". Sentsazio txarrarekin etorri ziren, baina, ohitzen joan beharko direla diote.

"Trebijano naiz egokiena ez izan, guretzat bakarrik da eta nahi dugunean entrenatzen dugu. Zelai berria beste kirol taldeekin elkarbanatu beharko dugu. Nahiz eta bi zelai egon kirol talde asko dago Ordizian eta denentzat motz gertuko dela iruditzen zait. Ez gara profesionalak eta denok ordu bertsuetan entrenatzen dugu", azaldu digu Axiok.

dea gara, asko kostatuko da jendeak Goierriko talde bezala sentitzea. Hori gure kontra doa, maila onean

mantendu nahi badugu Goierri osoko jokalaria eta zaleak behar ditugu. Hori gure esku ere egon liteke,

hor goian mantentzen bagara zaletasuna gehitzen joango da, baina, jaisten bagara ikusmina asko gutxituko da.

- ✗ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✗ Komunitateen kontabilitatea
- ✗ Akten idazketa
- ✗ Aurrekontuen eskaera
- ✗ Aholkularitza legala
- ✗ 24 orduko asistentzia
- ✗ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

A rkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



LADA
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA


N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47

faktore
URTE BERRI ON

Oriamendi, 37 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T 943 088 169
F 943 886 874
faktore@faktore.net
www.faktore.net



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar



Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54

Zorua eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu



Jose Antonio Iglesias: gurpildun aulkian kirolari

Jose Antonio Iglesias lazkaotarra elbarri geratu zen duela 8 urte izandako istripu batetan. Gaur egun 31 urte ditu gurpildun aulkiaz baliatzen da

batetik bestera joateko. Horrez gain, aulki bereziago batetan eseri eta atletismoa ere egiten du. Azken urteetan bizi den herrian, Orion, izan gara berarekin.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



GERTU
ENPRESA AHOULKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
www.ikaskide.net

INGELERA MITZA PRAKTIKA
URTARRILEAN

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Talde txikiak
- ✓ Cambridge azterketak:
- KET, PET, FIRST CERTIFICATE...

Urtean 20 bat lasterketetan parte hartzen du Jose Antonio Iglesiasek, 10 eta 20 Km artekoak normalean. Tarte-ka pistako probetan ere lehiatzen badu ere errepidekoak ditu gogokoenak. Behobia-Donostia ondoren, Tuterakoa, Santurtzitik Bilborakoa eta San Adriango lasterketak egin ditu. Orain erronka otsailean izango du Sevillako maratonia. *"Maratoia ondo datorkit, martxoan Frantzian izaten den lasterketa batetan parte hartzeko, bertan munduko atletarik onenak izaten dira"*, dio lazkaotarrak.

Noiz hasi zinen gurpildun aulki lasterketetan?

Duela 4 urte hasi nintzen. Orion, bada gurpildun aulki lasterketetan dabilen mutil bat eta berak utzi zidan probatzeko aulki bat, erosteko oso garestiak baitira. Hasieran Lazkaoko industrialdean egiten nituen entrenamenduak, ez nekian ondo entrenatzen nahiko nire erara aritzen nintzen. Orain entrenamenduak lantzeko prestatzaile fisiko baten laguntza dut. Duela bi urte hasi nintzen berarekin lanean eta hobekuntza handia nabaritu dut.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Gure entrenatzeko modua oinezkoen berdintsua da. Iraupena lantzeko, errepidean 35 Km inguruko entrenamenduak egiten ditut, serie motzak ditudanean



Behobia-Donostian hirugarren

Eguraldi txarra egiten zuenez, hasera batean, beldur izan zen, baina gustura geratu zen emaitzarekin. *"Euriarekin arriskutsua da, jaitsierak batez ere, nik urte batean izan nuen erorketa larri bat. Ezin duzu frenatu, eskularruek gurpilen uztaietan irrist egiten dute... dena da zaila-goa"*. Euria zela eta, ez zuen iazko den-

bora hobetzerik lortu, baina, *"burrengo urtean lortzea espero dut"*, dio umoretsu.

Gurpildun aulkien sailkapen orokorrean 7. egin zuen eta bere mailan 3. geratu zen. *"Behobia-Donostian hau zen lehenengo aldia mailak bereizten zirela eta sorpresa izan zen podiumean postu bat lortzea"*.

arratsalde 50 bat minutuko errodajea egiten dut pistan. Lehiaketarik ez dagoen garaian gimnasia ere joaten naiz, indarra hartzeko. Gimnasioko lanak lehiaketarako abiadura kentzen du eta neguan bakarrik egiten dugu.

Kemen elkarteko kidea zara ezta?

Bai, beraiek dira ezinduen Behobia-Donostia lasterketaren antolatzaileak. Horrez gain beste kirol batzuk eza-gutzeko ikastaroak antolatzen dituzte eta, garestia de-

nez, probatzeko materiala ere uzten dute.

Beraz, lehiaketako aulkia garestiak dira.

Orain dudana aulkia duela 3-4 urte erosi nuen, neurriak hartu eta Alemaniatik ekarri zidaten. Orain hobetzen jo-



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

LEIAR



KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN


ZUZENKI

AHOLKULARITZA



Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet .net
Hirigoien, 7 LAZKAO



www.zuzenki.net



atean aulkia ajustatuagoa behar dut, oraingoa ez zait gorputzera behar bezalako zehaztasunarekin egokitzen. Hori dela eta aulki berriaren behar dut. Danimarkara joan, neurriak hartu eta aulki berria erosi beharrean nago. Markak ontzen jarraitu nahi badut egin beharrekoa da al daketa hori.

Aulki hauetako bat 4.500 euro inguru kostatzen da. Horregatik diot, atletismoan hasi ahal izateko norbaitek aulki bat uztea beharrezkoa da. Nik berria ekartzen badut, zaharra hastera doanen bati utziko diot probatzeko, gero gustukoa badu, erosiko du berria.

Laguntzarik izaten al da materiala erosteko?

Ez, kirola egiteko ez dugu inongo laguntzarik. Zure aldetik bilatu behar dituzu,

niri Orioko udalak ematen dit diru-laguntza. Eskularruak, gurpilak eta horrelako gauzak erosteko ondo etortzen zait. Aulki berria erosi ahal izateko beste gastu batzuk kendu eta dirua aurreztu beharko dut.

Merezi al du hainbeste esfortzuz?

Bai, dudarik ez. Ni, gainera, oraindik ere hobetzen joateko adinean nago. Badago 40 urterekin oso indartsu dabilen jendea. Hau ez baita beste kirolak bezala txikitatik praktikatzeko, tokatzen zaizunean hasten zara.

Zein asmo dituzu aurrera begira?

Ni orain kataluniar batzuekin nago harremanetan. Beraien bidez erosiko dut aulki berria eta atzerriko maratoietara joateko aukera ere eskaintzen didate. Adibidez

Berlingoa oso garrantzitsua da eta bertara joan nahi dut. Hemengo lasterketetan Behobian ateratzen dira aulki gehien, 30-35 eta Alemania edo Suitza aldean ehunetik gora ateratzen dira. Han zure erritmoan doan jendea aurkitzea errazagoa da.

Datorren urtean Espainiako txapelketetan, nire mailan, medailaren bat lortzeko asmoa ere ba dut.

Eta zein da zure ametsa?

Paraolimpikoetara joatea, baina, oso zaila da. Gutxieneko denborak egin behar dira eta ez dira marka errazak izaten. Horretan ari direnak errendimendu altuko zentroetan daude eta guk ez dugu horrelakorik. Gustatuko zitzaidan saiatzea, baina oso zaila da.

Adibidez, Azpeitia-Azkoitia maratoi erdian lehen

ordu betetik gora behar izaten nuen eta aurtengo, gogor entrenatuta, ordu betetik jaistea lortu dut. Orain hobetzen jarraitzeko goiz eta arratsaldean entrenatzen hasi beharko naiz.

Ze maila daude gurpildun aulkietan?

T52 mailan osoki tetraplegikoak ez direnak daude, besoak mugitzen dituzte, baina indar gutxi dute. T53 mailan paraplegikoak gaude, besoekin indarra egiten dugu, baina abdominal eta lunbarrekin ez. T54 mailan hanka falta dutenak edo polioa dutenak daude, hauek gerrialdearekin ere indarra egiten dute eta batez ere lasterketa laburretan edo aldapetan abantaila dute. Adibidez Behobia-Donostian lehen 10etan zazpi T54 mailakoak ziren.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

**T
O
L
A
R
E**

URBITARTE



SAGARDOTEGIA

943 18 01 19

ATAUN

Aulkiko bizimodua

23 urterekin izan zuen istripua eta ospitalean zela erizainak aipatu zion Behobia-Donostian gorpildun aulki lasterketa izaten zela, *"nik ez neukan ideiarik ere"*. Nire bikotea Oriokoa da eta bertan ezagutu zuen hasieratik lagun izan duen kidea. Paraplegiko geratzea bizitza aldaketa handia da eta egun guztia etxean sartuta buruari bueltaka ez aritzeagatik animatu zen kirola egitera. *"Niri kirolak asko lagundu dit. Astelehenetik larunbatera egunero entrenatzen dut eta horrek erlaxatu eta deskonektatzen laguntzen du"*, dio lazkaotarrak. Kirolarien arteko giroa nabarmentzen du Jose Antoniok: *"Lasterketan beti irabaztea nahi izaten duzu, baina, lasterketatik kanpo oso giro ona daukagu gure artean, beti ere jende berria ezagutzen duzu eta oso gustura nabil"*.

Aparkalekuekin arazoak

Jose Antonioren ustez, elbarrituen bizi baldintza asko ari dira hobetzen. *"Adibidez, Lazkaon bizi nintzenean taberna gebienek koskaren bat zuten sartzeko. Orain bainbat berritu dituzte eta oso ondo prestaturik daude. Dudan arazorik handiena aparkalekuena da. Elbarrituen aparkalekuak askotan beste edozeinek hartzen dituzte edo bestela oso gertu aparkatzen dute, kontutuan hartu gabe gu ateratzeko eta aulkia ateratzeko atea alde-nik alde zabaldu beharra dugula. Hori oso gaizki daramat, gainontzean ez dut arazo berezirik. Iristen da puntu bat aulkian eserita zaudela konturatu ere egiten ez zarena. Ni normal ikusten naiz, edozein pertsonak dituen arazo berak ditut"*.

Hasieran aulkian esertzeko ere laguntza behar zuen, gaur egun bere kabuz mugitzen da eta edozein lekutara bakarrik joateko gai da, horretarako laguntza handia izan du kirola egitea. Orain etxebizitza egokitu bat lortzea du helburu, *"alokairuan bizi gara eta zaila da egokitu gabeko etxean bizitzea"*.

Beasaingo San Silbestrea

Goierrin batere lasterketarik ez da izaten eta Beasaingo San Silbestrean parte hartzea gustatuko litzaioke Iglesiasi, *"etxetik gertu da eta espalorik igo beharrik ez badago behintzat, oso gustura egingo nuke. Parte hartzea posible balitz, lagun talde bat joango ginateke"*.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

etxekin

www.zugaztibinet

zugaztibi@telefonica.net


Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



On Maurizio Luzuriaga, Idiazabalgo Bikario Santua gogoan

Idiazabalgo Pedro Mujikak, herriko On Maurizio Luzuriaga Olano parrokoari omenaldia eskaini nahi dio lerrootan, bere bizitza erdua aldarrikatuz. Era berean, santu egiteko aldarrikapena egin nahi du idiazabalدارrak. Lehenik eta behin, bere gorpuzkinak San Migel parrokiara ekartzeko pausoa bultzatu nahi du.

berriz

AMAYA ARZUAGA	FRENCH CONNECTION
MIRIAN OCARIZ	DIESEL
ISABEL MARANT	FOR ALL MANKIND
PAUL & JOE	ANTIK BATIK
HOSS	EARL JEANS
MISS SIXTY	SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxe: 943 88 91 18
LAZKAO

Pobrezia hain handia zen garai hartan, jende askok eta askok emigratu egin behar izan zuen. Baina On Maurizio familien miseriak arintzen laguntzen aritzen zen buru belarri, materialki eta izpiritualki. Bero edo hotz egin, soroetan lanean ikusten zituenei honela esaten zien: Zuek, nire gaixoak, hainbeste lan eta sakrifizioarekin zuen familiak aurrrera ateratzen ari zareten, Zeruko Erreinua irabazia daukazue.


Inoiz ez zuen dirurik, guztia eman egiten baitzuen, eta askotan uzteko eskatu behar izaten zuen, hainbat behar betetzeko. Esaten denez, inoiz ez zuen familia umilen oparirik onartzen. Behin baino gehiagotan, sotanaren azpian zeramatzan arropak erantzen zituen behar zuenari emateko. Ohikoa izaten zen oinutsik etxeratzen ikustea, oinutsik zihoan norbait eman zizkiolako. Bere etxearen azpian, eska-leek lo egiteko logela bat zuen, neguan hotzik pasa ez zezaten eta plater bero-reen faltarik ez izateko.

Gurutzetako Santutegian behin meza ospatuta, belaunikaturik, denbora luzez otoitz egiten zuen Gurutzetako Andre Mariaren aurrean. Kalbarioko ermitan ere sarritan egiten zuen. Serora bandejan bildutakoa eramatera joaten zitzaionean zera esaten zion: baina nola zatotz niregana horrekin, niri Ama Birjinak ordaindu dit eta; propina ere hartu behar izan diot, beraz, zuretzat gorde, behar duzu eta, eta jarrai ezazu orain arte bezala gure Gurutzeta Ama mai-tea eta bere elizaxoa hain

Tolosatik Idiazabala

Tolosarra jaiotzez, 9 senideetan zaharrena. 1885ean, 34 urterekin, Idiazabalgo San Migel Elizako bikario kargua hartu zuenean, familia osoa etorri zen Idiazabala eta bertako Bikario etxean bizi ziren. Bere beste bi anaiak, apaiz izan ziren eta arrebak (bat izan ezik, txikitan hil baitzen) ere bizitza erlijiosoan murgildu ziren. Mari Juana, On Maurizio hil zenean, Madrilgo Dr. Marañoongo sukaldari lanean hasi zen.

1915. urteko abuztuaren 10ean hil zen Idiazabalgo Bikario etxean, eskualde osoan hain ezaguna zen On Maurizio Luzuriaga Olano.



ondo zaintzen.

Inori ez zion bizkarrik ematen, bere bizilagun agnostikoaren (izkribau zaharra) laguna ere bazen, hain markada batzuk berandua-go Juan XXIII.ak behin eta berriz esaten zuen esaldi bat gogoratzen baitzuen: batzen gaituenari garrantzia eman diezaiozun eta ez barnatzen gaituenari.

Bere beste alderdi bat, hainbat apaizekin kultur arloan egindako lan itzela da. Zorionez, oso jakintsuak eta oso langileak ziren. Lehen mailako irakaskuntza bukatutakoan, apaiz bakoitzak gai ezberdinak ematen zituen, gazteen kultura maila nabarmen hobetuz. Gazte horiek normalean, Amerikara inmigratzen zuten, edo

eta, bizitza erlijiosoari hel-tzen zioten. Azken hauekin egiten zuen On Mauriziok lanik gehien, erlijioa eta latina eskaintzen baitzituen. Esaten denez, katekesian, beti Jainko onaz hitz egin zien haurrei, eta inoiz ez Jainko justiziagileaz, garai hartan aldarrikatzen zuten bezala. On Jose Galo Zudaire Organistak eta Musika Bandako Zuzendariak ere parte hartzen zuen eskola horietan.

Zazpi idiazabaldar

Zazpi dira, santutasunean hil diren idiazabaldarrak: Lazaro Mujika Beatoa (San Joan de Dioseko anaia); agustindarrak: Frai Sebastian Elorza (pobreen zerbitzailea) eta A. Jose Joakin Esnaola (kausak bukatuta); A. Natividad Gorrotxategi (misiolari mistikoa, Agustindar Misiolari Ama Nagusia, Brasilen santutzat daukate). M. Anbroxia de la Asuncion Gorrotxategi Ahizpa, Madrilgo S. Alonso Orozkokoa (arazo ekonomikoengatik ez zen bere kausa hasi). A. Migelito Iparragirre (frantziskotarra). Kordobako Luzenako penitentziako apostolua. Kontseiluaren dohaina zuen. 1985ean bere gorpuzkinak Jesusen Amaren Elizara eraman ziren. Gotzain misiolaria eta Gasteizko diocesiko lehenengo apaiz misiolaria: Marzelino Lardizabal monsiñorea.

Beneditarrei mirespena

1902an Frantzian Ordena erlijiosoek izan zuten debekuaren ondorioz, Belok-eko beneditarrek emigratu behar izan zuten, eta Idiazabala etorri ziren.

On Mauriziok berehala esan zien Campos Jauregia edo Etxeberriaundi jauregia hutsik zegoela. Lorategi egokia zuela. Idiazabalgo Monasterioa inauguratu zen hurrengo urtean. Egokitza-penean, mojeak bere etxe-

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

an hartu zituen. Monasterioaren egokitzapenean lanean zebiltzan monjeentzat ere beste etxe bat aurkitu zuen.

1905ean Gasteizko Gotzainari baimena eskatu eta Monasterioan nobizio beza-la sartu zen, bizitza sakrifikuatuko bat eskaintzeko. Frai Migel izena hartu zuen. Eliztarrak errukitan izaten ziren soroan lanean ikusten zutenean, edo bizkarrean belarrez betetako saskikadak zeramatzala ikusita, bera ez baitzegoen ohituta. Baina 6 hilabete berandua-go, bere lagun zen On Joakin Telleria mediku prestigiotsuak, osasun arazoa larriak tarteko, uzteko agindu zion. Beti aitortu zuen beneditarrekiko maitasun berezia. Eliztarren poza itzela izan zen berriz ere parrokiara itzuli zenean.

Egun eta klase bakarreko hileta

Urte hartan bertan, egun bateko eta klase bakarreko hileta ezarri zituen, gastuak ekidin eta klase arteko bereizketarik ez egiteko.

Hurrengo urtean bere ametsetariko bat bete zuen: Frai Jose Urteagak (Eskorialeko San Lorenzo Monasterio-ko Priorea, eta Maria Kristina erreginaren Aitor-tzailea eta Estatu Gaietako Aholkularia) Latin eskola fundatu zuen Idiazabal-en. Eskolak dohainik ziren. Idiazabalgo ikasleek gain, inguruko herrietakoak ere joaten ziren.

Esaten denez, A. Urteagak urtero Madrildik etor-tzen zen bakoitzean, hainbat artzaini erositako doze-naka Idiazabal gazta eramaten zituen, zurezko kaxatan sartuta, Agustindar Ordena-


koei opari egiten zien, Go-bernuko eta nobleziako ki-deak izaten ziren normale-an.

Ezin ikusiak

On Maurizio hain pertsona maitatua izanda, inbidiak eta haserreak sortu ziren kaskarragoen artean. Ingu-ruko herrietako hainbat ki-dek, eta batez ere Artzape-zak, bere aurkako kalum-niak zabaldu zituzten, bere bizitza zail bihurtuz. Artza-pezak Gotzainari bidalitako oharrean, herri horretan Doktrina azaltzeko beharra azaldu zion. Artzapezaren doktrina izango zen, On Mauriziook bere oratoria zo-ragarrian bere bizitzako adi-bideekin predikatzen bai-tzuen. Irainak jaso zituen, tartean ondorengo bi hauek: Gasteizko Gotzaina harrezkero ez zen Artzain-bisitan etortzen; eta herriko 150tik gora haurrekin Artza-pezak agindutako herrira joan behar izan zuen. On Mauriziook negar asko egin-go zuen bakardadean, beste irain batzuk ere jasoko zi-tuen, baina inoiz ez zen ke-xatu eta inori ez zion esan, ezta bere lagun Frai Jose Urteaga ahaltsuari.

On Mauriziooren bizitza eredu dela eta, bere ikasle-ak izan zirenek ez zuten amore eman, Amerikara jo-an zirenek ere ez. 1936ko gerran, Idiazabal izan zen-hilketarik egon ez zen ingu-ruko herri bakarra, Ser-moiak bizirik zirauela esa-ten zuten arduradunek: ezin liteke gaizkia gaizkiarekin itzuli, ondo begiratzen ba-dugu, gure etsaiek ere badi-tuzte gauza onak. Guztio-k gara Jainko onaren semeak.

Pedro Mujika



Santu izateko oztopoak

Idiazabaldarrok beti entzun izan dugu, ezagutzen zute-nek goraipatu egiten zutela. Zerbait egin behar dugu al-dareetan daudenen adinako santua baitaukagu eta bere gorpuak ez du hilerrian egon behar, berak hainbeste maite izan zuen parrokiara ekarri behar dugu, hortik ha-si behar dugu. Zenbait apaizen utzikeriak ez du mugarik eduki. Txikitatik ezagutu izan zuen On Joakin Tolosa pa-rrokoak gestioak hasi zituen, baina bere gaixotasunaga-tik ez zen kausaren amaierara iritsi. On Mateo Mujika Gotzainak, gaztetatik ezagutzen zuenak, behin baino gehiagotan On Maurizio Luzuriaga parrokoaren etsen-pluak eredutzat erabili zituen, baita bere lagun Marzeli-no Lardizabal monsiñoreak ere.

Hainbeste pertsonaia santuren fenomenoak, On Mau-rizioaren ereduaren jarraitzaileak, eta ez ohikoa denez, 2.500 biztanleko herri bateko parrokiatik hainbeste erli-jioso atera izanak, Agustindar Ordenako hainbat Nagusik adierazi dutenez, Estatuko inongo parrokiatan ez dute horrelako kasurik ezagutzen. Ondorioz, ondorengo-en Memoriarako ondoko aholkuak eman zituzten:

- San Migel Parrokiara On Maurizioaren gorpuzkinak eramatea.

- Parrokia hau basilika izendatzea, beraien parroko-entzako pribilegio bereziekin.

Azken prozesu hau duela hamar urte prestatu zen, ai-ta agustindarrak arduratu ziren Erroman guztia prest egon zedin, baina Donostiako Gotzaitegiak, dokumenta-zioa bidali zedin galarazi zuen, eta ez zen gauzatu.



kutxa

gizarte ekintza

Hainbat egunetan guztiok behar dugu isiltasuna; gure buruak zaintzea eta lasaitzea... Geuretzako leku bat behar dugu.

Gure bainugela diseinuek leku praktikoak sortzen dituzte non isiltasunaz gozatu ahal izango duzun: non zeure burua zinduko duzun, non lasaitu egingo zaren... Zeu bezain pertsonalak diren bainugelak.



etxeko altzariak osagarriak txorrotak komunak manparak hidromasailak berogailuak

> ez duzu jakingo zein hautatu.



harremana > Zelaeta 1 > Beasain > 20.200 > T.943 885 466 > F.943 161 975 > harriagresak@harriagresak.com > www.harriagresak.com

Gisatsola

Gaisotasun gehienetzako tratamenduak ditu osteopatiak, nahiz eta mediku osteopataren helburu nagusiak osasun egokiaren mantentzea eta gaisotasunen aurrikuspena sustatzen dituen.

Minik gabeko tratamendu naturalak...

Bizkarreko mina - Artrosia - Osteoporosia - Tendinitia - Disko herniak

Buruko minak - Migrañak - Disfuntzio temporomandibularak

Beasain


Andra Mari 13 Entsl.
Telefono Cita Previa 629 452 053

Tolosa

Avd. Navarra 14 Entsl. A
Telefono Cita Previa 943 651 422

Urretxu

Labeaga 66 Entsl. A
Telefono Cita Previa 943 725 56



Zer moduz pasatu duzu urtea?

Ongi. Lan eta lan aritu naiz gabon hauetarako opariak prest izateko.

Zer moduz portatu dira Goierriko haurrak?

Beno, haurrak haur direnez batzuetan txintxo eta beste zenbaitetan bihurri samar. Baina orokorrean Goierriko neska-mutilak oso jatorrak direla esan dezaket.

Eta gurasoak?

Ba hemen ere denetik dago. Batzuetan jator eta beste batzuetan zuhurrago. Hala ere, beraien familiarekin jolasteko denbora gehiago hartzea polita litzateke.

Eskutitz asko jaso al duzu?

Bai mordoxka bat. Zaku handiago baten beharrean nago!

Opariak erosi al dituzu?

Bai noski! Opari batzuk erosi eta txokoan bazterturik genituenak berreskuratu ditut.

Olentzero: “Superjokumagiko bat oparituko nieke Goierriko haur guztiei”

Jostailuak erostea zaila al da?

Uste baino errazagoa da! Haurren ezaugarriak eta adina, eta etxean dituen jostailuak ez errepikatzen saiatzen naiz.

Zer oparituko zenuke gustura?

Nik ‘superjokumagiko’ bat oparituko nieke Goierriko haur guztiei. Honek, taldean jolasteko aukera eta irudimenaren fantasian murgiltzen gaituen jolasa da...

Ikatzik banatuko al duzu aurten?

Bai, ikatz goxo pixka bat beti banatu behar da.

Eskatutako guztia oparitzen al duzu?

Hala saiatzen naiz! Jolasaren magia da benetan balio duena eta ez jostailu kopurua.

Normalean, nondik sartzen zara etxera?

Etxeko zirrikitu guztietatik sar naiteke.

Gaucan etxeetara joaten zarenean, zer gustatzen zaizu jatea eta edatea?

Egun horietan etxeetan janari goxo-goxoa egoten denez denetik jaten dut.

Zein mezu eman nahi zenieke Goierriko haurrei?

Goierriko haurrei pare bat mezu emango nizkieke; euskaraz aritu eta urte guztian jolastu dezaten eta daukatenaekin zoriontsu izaten ikasteko.



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Jose Agustin Jauregi



Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

Eguberri zoriontsuak



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

Pello Barandiaran

© 943 16 13 61

Jose Lasa, 3 LAZKAO



Zorionak eta Urte Berri on!

Tel.-faxe:
943 16 30 26

Goierri kalea, 10

ORDIZIA

Zer eskatu diozu Olentzerori?



Amaia Garmendia
6 urte, Zaldibia

Panpina eta Legoa eskatu dizkiot Olentzerori. Eskutitza idatzita daukat dagoneko. Etxeko atea irekita uzten diogu Olentzerori eta gazta eta ardoa utziko dizkiot, etorritakoan jan eta edateko.



Xabat Irastorza
6 urte, Zaldibia

Mando bidez ibiltzen den autoa, joko dibertigarria eta sorpresa eskatu ditut. Bi eskutitz idatzi dizkiot Olentzerori, lehenengoa gaizki egin nuen eta. Nik gazta eta ardoa utziko dizkiot, eta oparia uzteko zapata garbia jarriko dut.



Itxaro Estanga
5 urte, Zaldibia

Anai-arreben kotxe kapota eskatu dut. Eskutitza dagoeneko bukatu dut eta Olentzero eskolara etortzen denean emango diot. Tximinatik sartzen da Olentzero nire etxera eta nik ardoa jartzen diot edateko.



Garazi Etxabe
5 urte, Zaldibia

Negar egiten duen panpina arrosa eskatu diot Olentzerori. Etxeko atea irekita uzten diot gauean.



Mattin Barandiaran
5 urte, Itsasondo

Helikopteroa eta puzzlea eskatu ditut. Eskutitza idatzi eta bidali diot. Leihoa irekita uzten diogu gauean eta ardoa eta gailetak uzten dizkiogu.



Aiora Zurutuza
5 urte, Itsasondo

Txabolarako kortinak, belarritako luzeak eta elurretan ibiltzeko plastikoa eskatu dizkiot. Magia eginda sartzen da etxera Olentzero. Kafea utziko diot, eta zapata ere bai, garbi-garbi eginga.



Aitor Garmendia
5 urte, Itsasondo

3 opari eskatu dizkiot: lehenengo txirrindua, bigarren patinak eta hirugarren, berak nahi duena. Baserrian egongo naiz eta hara etorriko da Olentzero.



Unai Otegi
5 urte, Itsasondo

Karreretako kotxe bat, ordenagailua eta Batmana.

Bordatuak
eta arropa
konponketak

Oriamendi, 19
943 16 23 84
BEASAIN



Gurutze-puntua, puntu erdia
eta artiletan berezitasuna
Gai hauen ikastaroak
ere ematen dira

laboresotea@terra.es
www.laboresotea.com

TXUKUN
txakur garbiketa

655 732 546

Santa Madalena,4

Lazkao



Lazkao

Xabier Arzalluzen 'Asi fue' liburuaren aurkezpena

Lazkaoko Euskal liburu eta diskoen XVII. azokaren barruan hainbat eta hainbat ekitaldi egin dira abenduan. Amaitzeko, bi ekitaldi gelditzen dira:

Abenduak 20, asteartea: 19:00etan: Xabier Arzalluzen 'Asi fue' liburuaren aurkezpena eta solasaldia, Kultur etxean.

Abenduak 21, asteazkena: 20:00etan: Mintzalagunen kantu-afaria, Maizpide euskaltegian.

Beasain

Benito Lertxundi, abenduaren 23an

'40 urtez ikasten arituak' zuzeneko disko berria aurkeztuko du Benito Lertxundik, abenduaren 23an, Antzizar kiroldegian, gaueko 10,30etan. Beasaingo Kirol Elkartearen mendeurreneko ekitaldien barruan antolatu da Lertxundiren kantaldia.

Ordizia

Finalisten bertso saioa, urtarrilaren 6an

Ordiziako Argi-Berri elkarteak antolatuta, Goierriko Hitzaren aldeko bertso jaialdia izango da urtarrilaren 6an. Majori kiroldegian izango da arratsaldeko 6etan. Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalean parte hartu duten bertsolariak arituko dira taula gainean. Hau da: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

Pirritx eta Porrotx, urtarrilaren 7an

Goierriko Ikastolek Urruñako eta Ziburuko ikastolen alde antolatzen duten jaialdian, aurten Pirritx eta Porrotx pailazoez, 'Maite zaitut' ikuskizun berria aurkeztuko dute urtarrilaren 7an, Majori kiroldegian. Arratsaldeko 4,30etan hasiko da jaialdia, ikastoletak haurren hainbat kanta abestiekin. Sarrerak aurrez eros daitezke.




ANZIZAR, S. A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa


Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



Tel.:
943 887 048


Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

OSINALDE

KARROZERIA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN

 **GOENAGA**



Eguberri zoriontsuak denoi !


AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59
goenaga@goenaga.com
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.



KIMETZ
ILEAPAINDEGIA

- ✓ Estentsioak
- ✓ Rastak
- ✓ Liss Ionic sistema
- ✓ Biodepilazioa

Era guztietako orrazkerak!

Mendeurren, 2 - BEASAIN
Tel.: 943 881 442



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

AK

ANDREAK

jantziak - osagaiak

Neurriak: 42tik 60ra

Tel.: 943 16 16 72
Andre Mari, 1
(Udaletxe ondoan)
BEASAIN

albaitaritza klinika

Unai San Vicente

Labeaga 33B behea
Urretxu
Tel 943 03 63 04 (24 ord)
albaitaritzaklinika@usavak.net
www.usavak.net



IDIAZABALGO GUARDI INDUSTRIAGUNEA



SALGAI, ERRENTAN
eta ERRENTAN
EROSTEKO
AUKERAREKIN

Industri pabiloiak 250 m²-tik

☎ **629 446 510**

Oiarbide
Oinetakoak

Eguberri zoriontsuak denoi!

San Inazio, 14
☎ 943160434
BEASAIN

Laskurain, 12
☎ 943653786
TOLOSA

IBILGAILUAK

salgai

Audi A2 TDI salgai. 1.4, 75 zaldi. Egoera oso onean, 2001ekoa. 11.000 euro. 607512311.

Golf III salgai, 1.8 GL, gasolina. SS-AN. 689585853.

Audi 8 salgai. Extra guztiekin. Oso ongi zaindua. Prezio interesgarria. 628264441. Oskar.

Nissan Terrano II SR salgai. 2.7 td, 125 zaldi, 7 urte. Egoera ezin hobean. 618923009.

Volkswagen Bora 1.9 tdi / 110 salgai. Trendline. SS-BJ. 2000. urtekoa. Klimatizadorea. Garajeon egondakoa. Grisa. 620711655. Jesus.

Opel Corsa GSI salgai. SS-AL. Txuria eta sapaiarekin. Egoera nahiko onean. Prezio interesgarria. 680776404.

Citroen Xsara salgai. 1.6 v, 2004koa, 4.500 km. Egoera ezin hobean. 943887765 - 667250426. 18:00ak aurretik deitu.

Renault Clio 1.2 RT salgai. 1993koa, 5 ate, oso egoera onean. 1.200 euro. Arratsaldean deitu. 615793937.

Seat Ibiza Sport 1.9 diesel salgai. 130 zaldi. 2003. urtearen erdialdekoa. Klima, esp... Oso egoera onean. 665701552.

Audi A3 Tdi salgai. 100 zaldi. 3 atekoa. Beltza. 2002koa. Mantenimendu liburua eguneratua. Egoera oso onean. 13.000 euro. 615758441.

Kate M motorra, exc 400, salgai. 2001-2002koa. Egoera oso onean. 635716798.

Peugeot 306 turbodiesel salgai. SS-AV. 4.800 euro, negozio-garriak. 652755704.

Mercedes Vito 110 d salgai. 97. urtekoa. 646915961.

Bultaco Sherco motorra salgai. 290 cm³. 2002. urtekoa. Prezio onean. 3 hilabeteko garrantia. 690732704.

erosi

Vespa edo Lambretta motorra erosiko nuke, 60-70 hamarkadakoa. 645702110.

ETXEBIZITZAK

salgai

Donostian pisua salgai (Antiguan, Portuene kalean). 74 m², eguzkitsua, dena kanpo aldera, bistak, erakargarria. Bi balkoi eder, bi gela, egongela, sukalde-jangela zabala eta komunak. Dena berriztatua. Bero-gailua, gas naturalarekin. 360.000 euro / 60.000.000 pezetan. 645006363 (20:30etik 22:00etara deitu).

errentan hartu

Idiazabal. Herriko bikote batek etxea erosi edo alokatu nahiko luke. 659836386.

Alokatzeko edo konpartitzeko pisu bila nabil. 650412120.

elkarbanatzeko

Beasainen pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. Goizez edo 20:00etatik aurrera deitu. 679865826.

BESTELAKOAK

salgai

Atomic Rafe Carving eskiak salgai, 1,70m, 2 urte, 250 euro. 943888601 (gauez deitu).

Eskiatzeko botak salgai. Salomon markakoak, beltzak, berri-berriak. 600225673.

Ura berotzeko berogailua saltzen da. Oso egoera onean. 670422051.

Solarium horizontala salgai. Oso baldintza onetan. 645730723.

DMC hariak, gurutze puntua egiteko hariak saltzen ditut, dendako prezio erdian. lizapi@hotmail.com

Eskiatzeko botak salgai. 24,5 neurria (oineko 36-37). Egoera onean. 653709620.

Su egurra salgai. 943160786.

Trial sineko txirrindua salgai, Montty markakoa. 300 euro. 608874939.

Haur kotxea salgai. Ia erabili gabea, berri-berria eta osagarri guztiekin. Kapazoa, kukoa, silla, zakua eta burbuja. 130 euro. 626503990.

Ordenagailua, Windows XT, salgai. 3 urtekoa. 675710799.

3.000 litroko zisterna, ia berria, salgai. 948539381 - 616537765.

Logela salgai. 1,35eko ohea, somierra, 4 ateko armairua (1,90 m.), 2 mesanotxe, 3 kaxoi eta ispiludun tokadorea eta aulkia. Berria bezala dago. 540 euro. 20:00etatik aurrera deitu. 636370101.

Egongelako haritzeko altzari modularra salgai. Zabalera: 2'11, altuera: 2'22. Egoera onean. 667224676.

3 motorrentzako **erremolke**a salgai. Berri-berria. Dena galbanizatua. 635716798.

Belarra bueltatzeko eta biltzeko makina salgai. Erremolke, gurpil bikoitzarekin eta bolketarekin. 635716798 - 943085222.

Egurra erretzeko burdinezko estufa salgai, Jotul marka du eta dekoratiboa ere bada. Bere lau hankekin edozein tokitan jartzeko modukoa. 639212937. 22:30etik 23:00etara deitu.

Igloo motako mendiko denda salgai. 2 personentzako. Egoera onean. Merkea, prezio negoziagarria. Aukeran, pertsona barentzako beste denda bat. 600895984. Sandra.

Bi polipasto salgai: 300 eta 500 kilokoak. Trifasikoak. Bata finkoa eta bestea mugikorra. Baita motore elektrikoak ere. 656723131.

President Jimmy irratia, 27 Mhz-koa salgai. 60 euro. 1/4ko antena, basea eta kablea opari. Beasaingo 117 posta kutxa. Iosu.

Hewlett Packar, HP 1741A osziloskopioa salgai. Sondarik gabe (0-100 Mhz). 100 euro. Beasaingo 117 posta kutxa. Iosu.

LURSAILAK

errentan eman

Lazkao erdian, herrigunetik aparte dagoen 175 m²ko lursail laukia eta laua alokatzen da. Ezin hobea baratzean edo antzekoan jarduteko. 60 euro hilean (negozia daiteke). 630608227.

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

943 88 77 26 ALTZAGA



Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartera
943 160 120
Beasain
ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA

ENPRESARITZA: ✓ Finantza matematika
✓ Estatistika
✓ Kontabilitatea
✓ Kalkulua, etab.

PABILOIAK

errentan eman

Beasaingo Katea auzoan, 120 m²ko pabilioia errentan ematen da. Autoen konponketarako aproposa. 943027065.

LAPURRETA

Beasainen, cocker txakurkumea ostu zuten orain dela ia hilabete. Gorria da, buruan eta bular aldean txuria duena, eta bi hilabete eta erdi ditu. Saria emango zaio lapurraren berri ematen duenari. 943888068.

GARAJEAK

errentan eman

Idiazabalgo Kale Nagusian, Kutxa azpiko garajeetan, kotxearentzako plaza alokatzen da. 658747901.

Ordizia erdialdean, garaje itxia alokatzen da. 665756560.

Beasaingo Igartza auzoan 35 m²ko garaje bikoitz itxia alokatzen da. 600329197.

ANIMALIAK

oparitzeko

Artxain txakur emea opari, hiru urtekoa. lletsua, gari kolore argikoa, oso polita eta leiala. Honekin batera, kruze-ko txakur txikia ere opari, beltza eta oso salatia. 943888068.

3 hilabeteko txakurkume mestizoa opari. 619940982.

Katakumeak, oso mantsoak eta politak, oparitzen dira. 678449564.

salgai

Setter txakurra salgai, 8 urtekoa. Merke. 943160015.

3 hilabeteko ardi txakurkumea salgai. Oso polita. Prezio interesgarria. 943885102.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Fular bat galdu nuen abenduaren 3an, Zaldibia edo Ordizian. 943881077.

LANA

eskaerak

Sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira Ikaztegietak sagardotegian. 607365743.

Promotoreak eta apalak betetzeko pertsona behar dugu supermerkatuetan lan egiteko. 943321289. 10:00etatik 12:00etara deitu.

Sukaldaria behar da. 615745924.

Pintore autonomoa behar da, Goierrin lan egiteko. 608874939.

Tabernaria behar da, Lazkao Herriko tabernan. 669154819.

Begiralea behar da Antzuolako Gazte Gunean, asteburuetan lan egiteko. 943766246. Lierni.

Asteburuetarako zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 6-7 ordu. 616698236.

Pertsona euskalduna behar da, asteburuetan tabernan lan egiteko. 943160205.

eskaintzak

Mutil gaztea, dokumentuekin, edozein lanetan aritzeko prest dago. 617426339.

Garbiketan lan egingo nuke, goizean, lehenengo orduan, ordu eta erdi edo bi orduz. 636979559.

Ostalaritzan lan egiteko prest dago Ordiziako emakumea. 618151320.

Asteburuetarako sukaldari laguntzaile, dendari edo beste zerbitzetan lan egiteko prest dagoen emakumea naiz. 628932435.

Emakumezkoa prest dago haurrak edo agureak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620743076.

Lan bila dabilen, neska gaztea naiz. Edozertan lan egingo nuke. 676620931.

Erreformatan edo obretan lan egiteko prest dago 25 urteko mutila. Euskalduna eta arduratsua. Gidatzeko baimenarekin. 678471206. Gorka.

21 urte mutil lazkaotarra, tabernan esperientziaduna, lan bila ari da. 669072847.

Emakumezkoa, gida baime-narekin, lan egiteko prest dago, adinekoak zaintzen edo garbiketan. 678781985.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL



beasain

oskarbi

oinetakoak



Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on!



GUKlan

BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA




Lazkaoko haurrak gabonetan

Anartz Eztalak utzi digun argazki hau, Lazkaon, duela 30 urte inguruko eguberrietan ateratakoa da.

Ezkerretik eskuinera: Jexus Mari Etxeberria, Jon San Jose, Aitziber Eztala, Juan Mari Zeberio, Idoia Urteaga, Iker Estala, Anartz Eztala, Joxe Manuel Garmendia, Iñaki Agirrezabalaga, Xabier Arraiza eta Jokin Aizpuru.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira.
Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

IKASTAROAK
KOADROAK
OPARIAK
OSAGARRIAK



'Eguberri on!

J. M. Barandiaran, 3



ORDIZIA

☎ 943 88 76 15

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Migdaläla

moda eta osagaietan aholkulari

